

TOKIKOM


2012ko otsaila | 112. zenbakia

aikor!

txorierriko aldizkaria

Itsaso Arrieta,
Abesten euripean

Martxoak 8 Emakumearen nazioarteko eguna



Loiu Kontzentrazioa Udaletxean, martxoaren 10ean, 13:00etan, gero Emakumeen bazkaria, antzerkia eta dantzatzeko musika.

Sondika "Las chicas del calendario" Zine Foruma, martxoaren 9an, 18:30ean Auditorioan.

Berdintasunean, Rallyea ALARArekin, martxoaren 2an, informazio gehiago Gaztetxean.

Berdintasun Dinamikak, martxoaren 9, 16, 23 eta 30ean Kultur II ko lehenengo solairuan, informazio gehiago Gaztetxean.

Derio "Lana eta Familia Bateragarritasunean" Mahai Ingurua, martxoaren 6an, 17:00 etan Kultur Birikan, SUTONDOANek antolatuta.

"El Principio de Arquimedes" Zine Foruma, martxoaren 8an, 18:30ean Kultur Birikan, SUTONDOANek antolatuta.

Kontzentrazioa Udaletxean, martxoaren 10ean, 13:00etan.

Zamudio "Las Txirenitak" antzerkia BADULAKE Konpainia, martxoaren 8an, 19:00etan Zamudiotarren, gero Luntza.

"Lilazko Martia" Lehiaketa, martxoan zehar liburutegian.

"Emakume Idazleen Gida" Lehiaketa, informazio gehiago liburutegian.

"Baziren behin neska abenturazaleak eta mutil ameslariak", umeentzako ipuin saioa, martxoaren 24an, 11:30ean Zamudioko Umeen Liburutegian.

Lezama "A tres tiempos" Antzerkia, AUSARTAK taldea, martxoaren 9an, 20:00etan Kultur Etxean.

Graffiti Taillera, martxoaren 10ean Gaztelekuan, Gaztelekuko ordutegian.

Larrabetzu Martxoak 9, "Filomena Muxugorri" ipuin kontalaria Angulerin arrastiko 18:30ean, 4-10 urte bitarteko umeak.

Martxoak 11, "Baginaren bakarriketak" eskolan arrastiko 19:30ean. Prezioa: 3€. Hartzaileak: 13 urtetik gorakoak, haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dugu, honetarako izen ematea martxoaren 8ra arte izango da Angulerin.





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarte Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jon Legarreta, Sabin Arana, Itsasne Zubiri, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



12 Disparate Circo



24 AIKOR! 10 urte



30 Gaztelumendi abesbatza

- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Siberiako hotza**
- 12 Gurean izan da... Disparate Circo**
- 14 Gaztea eta... Ivan Ivenian**
- 16 Indarkeria prebenituz**
- 18 Itsaso Arrieta, kantu irakaslea**
- 22 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 24 AIKOR! 10 urte**
- 28 Elena Rodríguez, buruko osasuneko erizaina**
- 30 Elkarteak... Gaztelumendi abesbatza**
- 32 Txorierri ezagutu... Gorpuak bidea egiten eban**
- 34 Teknologia... Wikipedia, euskalduna**
- 35 Aikorrizketan... Fidel Castro elizaz ezkondu**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Saito - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 39 • 48196 LEZAMA

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea *Emiliano*

Mens bereziki atseginak • Egunero menua eta karta
Etzero erositako platerak • Jauzietako eta edukizkoak
Baskia atseginak • Jantoki salakak

R.º Gurelitz, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

KIMA Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gaitolza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Bizia Lurretik kanpo

Ba ote dago bizirik lurretik kanpo? Denok, noizbait, honelako galdera egin diogu geure buruari. Neure iritziz, bai. Uste da, unibertsoan gure galaxiaren antzeko 100.000 milioi galaxia daudela, eta geure galaxian, Esne Bidean, gutxienez 150.000 milioi izar-sistema. Beraz, badirudi bizia geure planetatik kanpo existitu behar dela, bestela zenbat izar eta planeta alperrik galtuta! Hipotesi hau onartuz gero, beste galdera asko sortarazten dira: karbonoan eta uretan oinarritutako bizia, edo beste modu batekoa? Adimentsua edo mikroorganismoena? Ondorioz, biziaren definizioa nork egiten duen, biologoa, biokimikaria, ekologoa edo mikrobiologoa den, horren arabera-koa da.

Definizioa alde batera utzita, non aurki daiteke bizia? Guk dakigula, Lurraz gain, Eguzki-sisteman ez dago bizirik, ez planetak ez euren sateliteetan. Hala ere, egotekotan Martek dauzka aukera gehienak, mikroorganismoetan oinarritutako bizia frogatzen bada. Europak eta Encedalok, Jupiter eta Saturnoren sateliteak, barne beroak sortutako ur ozeano bat daukate euren gainazalen azpian, eta bizia izateko baldintzetariko bi betetzen dituzte: ura egoera likidoan egotea eta energia izatea. Hirugarren baldintza, karbono iturri bat egotea da, eta hori oraindik ez da aurkitu.

Eguzki-sistematik kanpo, Lur itxurako planeta bizigarriak dauden jakiteko,

Unibertsoa hedatzen doa etengabe; beraz, gero eta urrunago gaude beste bizi motengandik



JON LEGARRETA
(Fisika Zientzietan doktorea)

NASAK Kepler satelite artifiziala eguzkiari orbitatzen jarri zuen 2009 urtean. Dagoeneko, planeta izateko hautagai diren 2.326 aurkitu ditu, horietatik 61 konfirmatu direnak. Pentsatu behar dugu, Kepler sateliteak eskumutur baten tamainakoa den zeruko eremu txiki bat soilik aztertzen ari dela!

Beraz, unibertsoan beste planeta batzuetan bizia dagoela suposatzea nahiko logikoa da. Horrek ez du esan nahi, beste mundu bateko izakiak Lurrera heldu direnik, Objektu Hegalari Ezezagunen jarraitzaileak dioten bezala. Gauza bat da, unibertsoan bizia egotea, eta beste bat azaldu ezin ditugun zeruko fenomenoak, estralurtarren erruz gertatzen direla esatea. Horrela izango balitz, euria eta tximistak antzinako jainkoen haserre bezala ulertu beharko genituzke gaur egun.

Amaitzeko, gure galaxian auzokiderik ez dagoela esan daiteke, ez baitugu jaso inolako kanpoko irratiseinale adimentsurik, eta existitzekotan gerta daiteke Lurra desagertuta egotea beraien seinalea helitzen denerako. Gainera, unibertsoa hedatzen doa etengabe, eta, ondorioz, gero eta urrunago gaude beste galaxiengandik eta, beraz, beste bizi motengandik.

Erabiltzaileak gora, Lezamako ludotekan

Udalak jakinarazitakoaren arabera, guztira 2.308 neska-mutil joan ziren iaz Lezamako ludotekara: haietatik 1.750, hiru urtetik bost urte bitarteko umeak ziren; eta 558, sei urtetik hamar urte bitartekoak. Aurreko urtearekin alderatzen bada, kultura-azpiegitura horren erabilerak gora egin du. Izan ere, 2010. urtean 1.853 ume erabili zuten guztira, 2011. urtean baino 445 ume gutxiagok. Eskaririk handiena urrian, azaroan eta abenduan izan zen.

Bideokopla lehiaketa

Euskal Herriko Bertsozale Elkar-teak eta AEKren Praktikatut egitasmoak Bideokopla Lehiaketa jarri dute martxan. Lehiaketak helburu bikoitza du: alde batetik, euskara ikasten edota praktikatzen dabiltzanak bertsolaritzaren mundura hurbiltzea; eta bestetik, bertsoek euskara praktikatzeke eskaintzen dituzten aukerak erakustea. Parte-hartzaileak bideo bat sortu beharko dute eta horretarako, koplak hartu beharko dituzte oinarritzat. Lehiakideak lagun bitik gorako taldeetan bilduko dira, eta sei koplatic hamabi koplara bitarteko sorta bat osatu beharko dute. Koplok bideo batean grabatuko dituzte, gai hau ardatz dutela: Euskaraz bizi nahi dut, dugu, duzu, zaitut... Doinua libre izango da.

Lehiaketa helduen euskalduntzeko zein mintzapraktika egitasmoetako edozein erakundetan dabiltzan taldeei dago zuzenduta. Eta, hala eskatuz gero, bertsolari baten laguntza jaso ahal izango dute. Bideoak martxoaren 25a baino lehen bidali behar dira praktikatuak@gmail.com helbidera. Talde irabazleak bertso-bazkari edo afaria jasoko du saritzat.

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK

ZERRITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ABETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONA/FAX: 94 455 64 87

GAZTELEKU TABERNA
Andra Mari, 6 - Larrabetzu
94 455 88 97

osteko arrak
egoten doguz

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefona: 944 543 705

Apezetxeak Quijote Saria irabazi du

Gaztela-Mantxako Argazkilari Profesionalen Elkartek Quijote Sariak antolatatu ditu zazpigarren aldiz. Lehiaketan zazpi kategoria daude eta Joseba Apezetxea zamudioztarrak lehenengo saria jaso du erretratu kategorian. Joseba askotan proposatu dute hainbat lehiaketarako, baina hau saria lortu duen lehengo aldia izan da. Esan digun bezala, oso pozik dago eta lehiaketa irabaztea eragingarria izan da lanean jarraitzeko. "Gainera, berezia izan da. Izan ere, kategoria horretara zamudioztarren

erretratu bi agindu nituen: bata, Carmen Agirregoitiarena; eta bestea, Martin Urrejolaarena. Epaimahaia bien artean egon zen zalantzan, eta azkenean emakumearena aukeratu zuten irabazle".

Orotara 300 argazki aurkeztu dira Quijote Sarietara. Josebak bost agindu zituen: Carmen eta Martinen erretratuak, paisaia bi eta biluzi bat. Elkartekok 50 argazki jarri zituzten ikusgai, eta euren artean Josebaren bost lanak izan ziren.



KOLOREZ BETE DITUGU... -

Kaleak, txokoak, bazterrak, etxeak, tabernak, ikastetxeak, euskaltegiak, herriak... Txorierri. Eta kalera atera dira pailazoak, sorginak, munstroak, hippiak, cowboyak, indioak, haserretuak, lamiak, zantantzarrak... Eta ederto pasatu dugu desfileetan, berbenetan, afarietan, parrandetan, lehiaketetan... Umorea ez dugu galdu gune latzak bizi ditugun arren. Latzagoak izango direla diote adituek; datozen egunetan ere umorea ez galtzea espero dezagun.



LARRABETZU
94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu
naturalak

GOITOLTZA, 7 B EZEKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

EXCAVACIONES
AZURMENDI
epetangi@excavurmendi.com



MOBILAK: 649 102 122
TEL./FAX: 944 554 158



Ardo-dastatzea eta bertso afaria

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak ardo-dastatzearen gaineko ikastaroa antolatu du hamabigarren aldiz. Ikastaroa martxoaren 20an, 22an eta 23an izango da, 19:00etatik 21:00etara arte, Larra-goiti jauregian. Bazkideek eta berba-lagunek 20 euro ordaindu beharko dute; eta gainontzekoek, 30 euro. Izena emateko epea martxoaren 9ra arte egongo da zabalik. Bestetik, bertso-afaria egingo dute martxoaren 30ean. Ekimena Lubarrieta jate-txean izango da gaueko 9etan, eta Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes eta Jon Maia ibiliko dira bertsoan. Gai jartzaileratxe Ibarra arituko da. Txartelek 15 euro balio dute, baina 20 urtetik beherakoek 12 euro ordainduko dute. Txartelak estankotan, Mari Elinean, Batzokian eta Susterrak tabernan eros daitezke. Izena ematea martxoaren 27a baino lehen egin behar da. Era berean, ekimen bietarako, lagatzu@lagatzu.org helbidera bidal daiteke mezua, edo elkartearen kideei esan.

Mendira goaz

Bailarako mendizaleek beteta dute agenda, izan ere, herrietako taldeek hainbat ekimen antolatu dituzte datozen egunetarako. Horrela, bada, Gailur Lezamako mendi taldekoek irteera egingo dute El Caliz ferratarra, martxoaren 11n. Hura Ramales de la Victoria herrian, Kantabrian, dago eta azaldu dutenaren arabera, nahiko erraza da egiteko. Hala ere, nahiago duenak paseoa eman dezake ferrataren gailurretik. Ostean, bazkaria egingo dute. Ekimenean parte hartu nahi duenak izena eman dezake martxoaren 5era arte. Taldearekin bazkaltzeko asmoa dutenek 20 euro sartu behar dute kontu korronte honetan: 2095 0051 8838 30420083. Izen-abizenak ere adierazi beharko dituzte. Halaber, Joserra Alonso taldearen kideak *Trekking al Aconcagua* bideo emanaldia eskainiko du martxoaren 23an. Ekimena iluntzeko 8etan izango da Uribarri Topalekuan.

Bestetik, Untza Derioko mendi taldekoek "Bakio-Meñaka" GR-280 Uribeko etapari ekingo diote martxoaren 18an. Hitzordua goizeko 7:30ean ipini dute Nagusien Etxean. Eta hilaren 25ean "Mutriku-Markina" Done Jakue bidearen Bizkaiko zatia egingo dute. Mendizaleak goizeko 8etan batuko dira Nagusien Etxean. Eta martxoaren 15erako, hitzaldia antolatu dute Nafarroako kutxan. Hori arratsaldeko 7:30ean izango da, eta Txomin Etxebarriak eta Pilar Vázquezek erro-

mesentzako aterpeak edukiko dituzte hizpide bertan.

Azkenik, Altzora Sondikako euskara elkarteak irteera antolatu du kostaldara. Ekimena martxoaren 25ean, domekan, egingo dute, eta hitzordua goizeko 9etan jarri dute tren-geltokiko aparkalekuan. Handik autoz joango dira Gorkizerraino, ibilbidea herri honetan hasiko dute-eta. Besteak beste, Astondoa itsasargia eta Billano irla ikusiko dituzte eta ibilalditxoa egingo dute Ermua mendian zehar. Aipatu diguten bezala, aukera ona izango da kostaldeko bazterrak ezagutu eta euskaraz aritzeko. Izena ematea altzora.ee@gmail.com helbide elektronikoan egin daiteke. Era berean, 635 75 35 95 telefono zenbakira dei daiteke.



ANULACIONES - SEPTICAS
MUNGIA
Estalideria
Garbiketak eta mantentze-lanak
Tatuak
Hobi seguruak
24 orduko zerbitzua
Pisoa, 2C - 4. islea | 48170 Zamudio BIZKAIA
T: 94 446 02 09 | Fax: 94 44675 99
mungia@sanamiamungia.com | www.sanamiamungia.com

BAR BIDE-BI
Zamudio
Aukeratu zurea!
Goizeko 5etatik aurrera zabalik
Gosari bereziak
Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

EGUNEKO MENUAK
ESPEZIALITATEA. TORTILLAK
Lehendakari Leizaola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

cianoplan PDF.3
DESKARGATU DOAN EUSKERAZ
www.cianoplan.es/baliabideak

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Indaba-usaina, Loion



Urtarrilaren azken domekan, Nazioarteko Putxera Txapelketa egin zen lehenengo aldiz Loion. Oso eguraldi txarra egin zuen, baina horrek ez zituen parte-hartzaileak kikildu. Goiz-goizetik hasi ziren gauzak prestatzen, eta, besteak beste, jubilatuen etxeko eta elizako arkupetan babestu ziren euritik eta hotzetik. Goizak aurrera egin ahala, indaba-usainak hartu zuen herria. Udala oso pozik dago txapelketak izan duen arrakastarekin. Horrela, Josu Begoña kultura zinegotziak azaldu digun bezala, txapelketara 75 putxera aurkeztu ziren, eta Bizkaiko hainbat herritako lagunek hartu zuten parte bertan: Portugaletakoak, Santurtzikoak, Balmasedakoak, Zallakoak eta Gorlizekoak, batzuk baino ez aipatzearren; Burgosetik etorritako lagunak ere lehiatu ziren txapelketan. Lehenengo saria Eran-dioko Gerardo Saizek irabazi zuen eta 600 euro, urrezko putxera bat eta txapela eman zizkioten saritzat. Bigarrena Bakioko Javi Ormaetxeak eskuratu zuen, eta 400 euro eta zilarrezko putxera jaso zituen; eta hiru-



garrena, Bilboko Rikardo Irkok, eta hari 200 euro eta brontzezko putxera eman zizkioten saritzat. Horrezaz gainera, garaikurrak eta ardo eta txakolin kuxkak banatu ziren 20. postua arte sailkatu zirenen artean.

Usain goxoa herrian, eta indabak das-tatu behar. Parte-hartzaileak eta lagunak herriko pilotalekuan batu eta han bazkaldu zuten goizean prestatutakoa. Herri bazka-rian 402 lagunek hartu zuten parte. Bazka-lostea Lotxo taldeak girotu zuen.

Liburuak berdintasunerako

Lezamako Udalak herriko umeei eta gaztetxoei zuzendutako ekimen bat jarri du abian Gizon eta Emakumeen Arteko Berdintasun Planaren haritik. Ekimen honen helburua da gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko hausnarketa egitea eta kontzeptua barneratzea. Horretarako, gaia jorratzen duten hainbat liburu jarri ditu euren eskura, ludotekan, gaztegunean eta gaztelekuan. Era berean, hiru gunee-tako begiraleek liburuei lotutako ekin-tzak antolatuko dituzte, erabiltzaile-n artean eztabaida bultzatzeko. Guztira, 35 liburu sartu dira ekime-naren barruan. Testu guztiek ber-dintasunaren ingurukoak izan arren, beste gai batzuk ere jorratzen dituz-te, umek eta gaztetxoek aztertze-ko interesgarriak direnak: emakumea eta feminismoa, senideen arteko harremanak, nortasunarekin lotura duten arazoak, konplexuak, sexua eta elkarlana, esate baterako.

Pagotxen azoka

Danerik Paraje! Derioko merka-tarien elkarteak Pagotxen azoka antolatu du martxorako. Denda bakoitzaren aurrean postu bat jarri-ko da, eta herritarrek eskaintza bereziak topatu ahal izango dituzte bertan. Pagotxen azoka martxoaren 2an, 10:00etatik 20:00etara, eta martxoaren 3an, 10:00etatik 14:00etara, egingo dute.

ESTILISTA
NESA-HUTILEN
ELKAPAINDEGIA
EVA ARDINES
AmAr
Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara
Uribe Plaza, 1 - Behe 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19: (Aurreko txanda)

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ASADOR
ARAMENDI
EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZAK
Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA
ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

ama
taberna
Leizola plaza, 2 - Behe (Zamudio)
94 452 04 08

Zamudiok txiki-txekea bultzatu du

Zamudioko Udalak ekimen berria jarri du abian, asmo bikoitza duena: alde batetik, iaz seme-alabarik izan duten familiei laguntza ematea; eta bestetik, herriko merkataritza bultzatzea. Ekimena 2011. urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean seme-alabarik eduki duten gurasoei dago zuzenduta, eta denboraldi horretan umeren bat seme-alabatzat hartu dutenek ere laguntza eskuratu ahal izango dute. Familia bakoitzeko 500 euroko txiki-txeke bat emango da, eta erditze edo adopzio multiplerik izanez gero, laguntza ume-kopuruaren arabera biderkatuko da. Gurasoek gutxienez urte bi eraman beharko dute herrian erroldatuta. Onuradunek bost eurotik 50 eurora bitarteko txartelak jasoko dituzte, eta haiek ekimenarekin bat egin duten herriko komertzioetan erabili ahal izango dituzte. Txeke bakoitzean onuradunaren izena eta iraungitze-data azalduko dira, eta edozein produktu erosi ahal izango da, umearen gastuekin zerikusia duena eta ez duena. Gainera, zerrenda bat emango zaie gurasoei, zeinetan erosketan egin daitezkeen dendak agertuko baitira. Eki-menarekin bat egin duten komertzioetan kanpainaren ikurra kokatuko da.

Organoa, berriro entzungai Larrabetzun

Larrabetzuko Andra Mari elizako organoa abenduaren hasieratik urtarri-laren amaierara arte egon da desmuntatuta, teklatura konpontzera eraman behar izan zutelako. Hura eraberritu zen, eta otsailaren 19an berriro izan zen elizan organoaren soinua entzuteko aukera. Egun horretan Chacon, Gurudi eta Bachen konposizioak jo zituen hango organo-jotzaileak. Beste alde batetik, organoa 1929ko otsailean eman zioten elizari Esteban Gangoiti Ugaldek eta bere emazte Mercedes Agirre Basagoitik.

Elkartasuna, Haitirekin



2010. urteko urtarrilean, zazpi gradu-ko lurrikara izan zen Haitin. Ondorioz, Port-au-Prince bertako hiriburua suntsitu zen eta milaka lagun hil ziren. Urte bi pasatu dira handik hona, baina Karibeko herrialde horretan oraindik laguntza behar dute. Danerik Paraje! Derioko merkatarien elkarteak, Udalak eta Lions Club Bilbao elkarteak kanpaina bat jarri dute martxan, Haitiko biztanleei laguntza emateko. Horrela, herriko dendetan estresaren kontrako pilotak jarri dituzte salgai. Pilotek bihotz forma dute eta bakoitzak euro bi balio du. Kanpainak martxoaren 10era arte iraungo du, eta batzen den dirua koleraren aurkako txertoak erostera zuzenduko da. Txertook Haitira aginduko dituzte. Guztira 500 pilota jarri dira salgai, eta, adierazi digutenez, herri-

tarren erantzuna ona izan da eta pilota guztiak saltzea espero dute. Nolanahi ere, hau ez da lehenengo aldia Deriok Haitirekiko elkartasuna adierazten duena. Hara 6.000 euroko diru-laguntza agindu zen 2010. urtean.

Bestetik, otsailean "Ume haitiar baten begiradan zehar" argazki-erakusketa inauguratu zen Kultur Birikan. María Antonia Liviano, Nuestros pequeños hermanos gobernuz kanpoko erakundearen kidearen esanetan, erakusketan ez dira hondamendi baten irudi tipikoak batu. "Haitiko umeek eurek egin dituzte argazkiak, eta irudiak euren egunerokotasunaren isla dira. Itxaropentsua da". Erakusketak MOMA Miami museoa inauguratu zen 2010. urtean, eta Derion martxoaren 10era arte izango da.

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2. Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

conseguidlo gertu

ABOLKUALTZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALERONTAK
SEGUROS BILBAOREN AGENTZIA

AM

FORMACION Y TRADUCCIONES

- INGLES ESPAÑA
- MÁS A GUSTO
- ATENCION OFICIAL
- EXTERNO PRESTACIONES
- ONE-TO-ONE ESCUELA
- PRESTACIONES EMPRESAS
- ESKOLAK KAMPOROKI GELAK
- ITZULPEN ZERBITZUA

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaiotza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Errementeri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08



BIZKAIA IRRATIA **Txorierrin**

F.M. **102.6** Mhz

www.bizkaiairratia.com

Mikel Zarate Saria

a: Jon Rozadilla

Lezamako Udalak eta Elkar argitale-
txeak Mikel Zarate Haur-literaturako Saria
antolatu dute hirugarren aldiz. Sariketa
honen helburua da haurrentzat irakurgai
berriak sortzea eta idazleen lana bultzat-
zea. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat
euskaraz sortutako kontakizunak aurkez-
daitezke lehiaketa honetara, eta jatorriz-
koak izan behar dute, beste inondik mol-
datu gabeak, aurretik saririk jaso gabeak
eta argitaratu gabeak. Gutxienez, 10
orrialde eta gehienez 50 orrialde eduki
beharko dituzte, eta Udaletxera bidali
beharko dira apirilaren 30a baino lehen
(Lezamako Udala – Mikel Zarate Saria,

Aretxalde 1, 48196 Lezama). Gutun-azal
handi batean idazlanaren hiru ale sartuko
dira, baita gutun-azal txiki bat ere. Haren
azalean, idazlanaren izenburua adierazi-
ko da; eta barruan, egilearen izen-abize-
nak, helbidea, telefonoa eta nortasun
agiriaren fotokopia.

Epaimahaia Leire Bilbaok, Miren Agur
Meabek eta Xabier Mendigurenek osatu-
ko dute, eta erabakia beranduenez maia-
tzaren 31n emango dute ezagutzera. Ira-
bazleak 3.000 euro jasoko ditu saritzat.
Horrezaz gainera, Elkar etxeak argitara
emango du lana. Bestetik, aipatu beharra
dago Sariaren aurreko edizioa Asier Men-
doza zarautarrak irabazi zuela. Mendo-
zak *Nire aita ikusezina* nobela idatzi zuen.

Gaixotasun Arraroen Eguna

Otsailaren 29an Gaixotasun Arra-
roen Nazioarteko Eguna izango da.
Horren haritik, Gure Señeak Derioko
elkartek ekimen bi antolatu ditu.
Lehenengoa otsailaren 29an bertan
egingo da. Pirritx, Porrotx eta Mari-
motots pailazoez *Irrien lagunak* ikus-
kizuna eskainiko dute herriko fron-
toian. Emanaldia arratsaldeko 6etan
hasiko da eta sarrera doan izango da.
Bigarren ekimena martxoaren 10ean
izango da Gurea Aretan. Iban Pérez
herriko bakarriketa egileak eta Wol-
con Proyect musika taldeak saio bana
aurkeztuko dute. Ikuskizuna iluntze-
ko 8:30ean izango da, eta sarrerak
bost euro balioko du. Batzen den
dirua elkarteari emango zaio.

Dokumentalak euskaraz

Tximintx Derioko euskara elkarte-
ak eta Argia astekariak hitzarmena
sinatu dute. Horri esker, urtean
gutxienez hiru aldiz proiektatuko dira
euskarazko film-dokumentalak Kultur
Birikan. Euskara eta horren erabilera
bultzatzeaz gainera, euskal zuzenda-
rien lana ezagutzera ematea du hel-
buru ekimenak. Kultur Birikan aurkez-
tuko den lehenengo lana *Sahara
Maraton* da. Jon Garañok eta Aitor
Arregik Tindoufen 2003. urtean egin-
dako dokumentala da, eta errefuxiatu
sahararren egunerokotasunera hur-
biltzen gaitu. Dokumentala martxo-
aren 15ean emango da 19:00etan.



ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

LIBRERÍA SONDICA LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
pazergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ATARRABI

Erremerterri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

Txorierri

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxine 6, bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larraldia: 670 985 885 - www.txorierri.com

Mihiluze EITBko saiork arrakastatsuenetarikoa bat da; dibertigarria eta egokia euskara lantzeko. Saioa oinarritzat hartuta, Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak "Mihiluze Txorierrin" lehiaketa jarri du abian. Hura Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan dabilen ikasleei dago zuzenduta, eta gaztetxoek eskola orduetatik kanpo euskaraz gozatzea eta hizkuntza lantzea ditu helburu nagusiztat.

Lehiaketa herri bakoitzeko ludotekaren bitartez bideratuko da. Izena emateko epea martxoaren 1etik apirilaren 20ra arte egongo da zabalik. Hori bakoitzari dagokion ludotekan egin beharko da, eta parte-hartzaileak bikotea osatuta dutela edo bakarrik azaldu ahalko dira hara. Izan ere, aukera dago bikotea ludotekan bertan osatzeko. Kanporaketak apirilaren 23tik maiatzaren 20ra bitartean egingo dira. Ludoteka bakoitzak bere funtzionamenduaren eta parte hartzaileen disonibilitatearen arabera antolatuko ditu kanporaketak. Saio bakoitzak ordu eta erdiko iraupena edukiko du eta gehienez lau bikote arituko dira batera. Parte-hartzaileek telebistako saioan agertzen diren proba berberei egin beharko diete aurre: Erantzuna emanda, Tribuaren berbak, Hieroglifikoa, Horma, Potokumeak, Esamesak anabasak eta Zer da zer. Bikoteei galdera bana egingo zaie atal bakoitzari buruz.

Bikote irabazle bakoitza aterako da herri bakoitzetik, eta horiek finalaurrekoetara joango dira. Oraindik ez dago zehaztuta finalaurrekoak zein egunetan eta non egingo diren; hala ere, aurrera daiteke egun bitan izango direla eta bi ludoteka desberdinetan egingo direla. Egun bakoitzean hiru herritako ordezkariak arituko dira norgehiagoka, eta puntuaziorik altuena lortzen du-

Euskara mihiaren puntan

Txorierrin antolatuko den Mihiluze lehiaketan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek hartu ahalko dute parte. Euskara arloan duten jakintza erakutsi beharko dute eta, horren truke, irabazleek familian disfrutatze-ko sariak jasoko dituzte.



ten hiru bikoteak finalera pasatuko dira. Euskara Zerbitzutik adierazitakoaren arabera, asmoa dago finala ekainaren lehenengo egunetan egingo.

Bertara, nahi duten herritarrek joan ahalko dira ikusle, eta leku egoki batean egingo da, ahalik eta publiko gehien hartu ahal izateko.

Sariak

Euskaraz gozatu eta hizkuntza lantzeaz gainera, "Mihiluze Txorierrin" Lehiaketak aukera ederra eskaintzen die gaztetxoek, ondo pasatzeko, lagun berriak egiteko eta, zergatik ez, herrien arteko "lehiaketa" berpizteko; beti ere modu on eta egokian. Parte-hartzaile guztiek kamiseta bana jasoko dute saritzat, eta kamisetetan "Mihiluze Txorierrin" logotipoa azalduko da. Finalera ailegatzen diren hiru bikoteek familia osoarekin disfrutatze-ko ekimen bana jasoko dute saritzat. Sariok bikote bakoitzak lortutako emaitzen arabera izango dira.

Mihiluze saioak telebistatik herrira egin du salto, eta hura oso arrakastatsua izan da antolatu den herri guztietan. Horregatik, Txorierriko gaztetxoek ere lehiaketarekin bat egitea espero dute Euskara Zerbitzutik. Beraz, badakizue; animatu, izena eman eta... euskaraz gozatu!

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Elegabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

pro audio
SONIARI ADITUAK

- hi-fi
- nobigazioa
- telefonis
- segurtasuna
- lehiaketa
- pertsonalizatzea

Txorierrin et... 15
48150 Sondika bizkaia
944 533 375

www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com



Холодная!

Errusieraz "hotza!" esan nahi du. Eta Siberiatik etorritako tenperatura jaitsiera pairatu ostean, errusiar bizimodura moldatu garena esan daiteke, tenperatura esparruan bada ere. Termometroa begiratu eta zero azpiko zenbakiek ikaratu ninduten. Hotz honekin pentsatzeak ere lana eman du. Aurtengo udaberria zertxobait aurreraterik balego!

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti



PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

DIETETIKA
NATUROPATIA
PRODUKTU EKOLOGIKOAK
KOSMETIKA
ESTETIKA

Sabino Arana 3 Lonja
48150 Sondika - Bizkaia
94 655 80 00 - 689 99 88 43
izpilen@gmail.com



Zurezko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisine, 2 - Belako Elkarteia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA



Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 475 746

Mitxine, 15 beheak
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27



Oxela-ekoiztan dugu:
odolosteak, txorizoa,
beistorra, solomoak...

Plater aurrekoiztatu

Golri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17



Psicologia Social
Psicologia - Pedagogia - Logopedia

URSULA TOMÁS ALMAGRO
645 147 982
Mitxine, 3 beheak • 48150 Sondika
www.urel.es • urel@urel.es



“Gure saioetan neska da mutila hartzen duena”

t/a: Gaizka Eguskiza

Ezagutzen zenituzten Txorierrri eta gure aldizkaria? Zer deritzozue?

Txorierrin behin baino gehiagotan egin dugu lan. AIKOR! aldizkari txikia da, eta horren modukoak oso interesgarriak dira, independenteak direlako. Gainera, hemengo herritarrek aldizkarian parte hartzeko aukera dute, eta informazio hurbila jorratzen da.

Bata, Diego, Argentinakoa; bestea, Shakti, Gipuzkoakoa. Zelan bildu zintzen taldea sortzeko?

Diego: Ni La Panpakoa naiz, Argentinakoa. 2008an Euskal Herrira, Bilbora, heldu nintzen. Ia 10 urte eman ditut zirkoa egiten, eta Kukutza Errekaldeko gazetxean nengoela ezagutu nuen Shakti. Biok Koblakari Bizkaiko Malabaristen el-

DISPARATE CIRCO | Diego Aimar eta Shakti Olaizola

Disparate hitzak zentzuga-bekeria esan nahi du euskaraz, baina Diegok eta Shaktik osatzen duten bikoteak ez du burugabeke-riarik egiten; eurek malabarismo, akrobaziez eta umorez jositako ikuskizunak lantzen dituzte. AIKOR! aldizkariaren jaialdian zuzenean ikusteko aukera izan genuen.

kartean ibiltzen ginen. Gure harremana ona zen eta Disparate Circo konpainia sortzea erabaki genuen. Gainera, beste talde batzuetan ere egiten dugu lan.

Shakti: Ni Irungoa naiz, baina Bilbora etorri nintzen Arte Ederrak ikastera, eta hor gelditu naiz. Dantza garaikidea egin dut, eta hasiera batean malabareak eta akrobaziak nituen zaletasuntzat, baina, denboraren poderioz, horiek ogibide bihurtu dira.

Nolako ikuskizunak egiten dituzue?

Gureak akrobazia-ikuskizun ezberdiak dira: normalean mutila da neska hartzen duena; gure saioetan, aldiz, Shaktik ni hartzen nau. Beste alde batetik, oso



*“Orain zailagoa da
hitzen bidez nahi
duguna esatea,
keinuen bidez baino”*

*“Zirkoa artea
pobrea dela diote.
Ohitura dugu
krisian bizitzeko”*

gutxitan hitz egiten dugu eta umorea da gure ardatza. Era berean, bihurrikatzeak egiten ditugu, eta gorputzak elkartuz figurak sortzen ditugu.

Zuen ikuskizunetan, hitzak baino gorputza da garrantzitsuagoa. Erraza da hori?

Denboraren poderioz joan gara lantzen. Egia esan, orain zailagoa da nahi duguna hitzen bidez esatea keinuen bidez egitea baino.

Antzerkiaren egoera beti omen da txarra, baina zelangoa da zirkoarena? Antza, modan dago azken bolada honetan....

Zirkoa arte pobrea dela diote, eta, ondorioz, ohitura dugu krisian bizitzen. Gaur egun murrizketak kulturen eta heziketan egiten dira, eta horrek eragin zuzena du gure lanean.

Derioko neska bat, Iraide Rabadán, Granadan dabil zirkoa ikasten. Zaila da zirkoan aritzeko heziketa lortzea, ezta?

Eskolak garestiak dira, eta gaur egun oso nekez ematen dira bekak. Gainera, taldeak txikiak dira, eta eskoletara sartzeko baldintzak, zorrotzak.

Kukutzako kukuak

Duela 13 urte, Errekalde Bilboko auzoko gazteek industriadako tresneria-fabrika zaharra okupatu zuten. Horrela jaio zen Kukutza gaztetxea. Lantegia aspalditik zegoen itxita eta jabeek ez zuten eraikina erabiltzen. Hala ere, iaz eraikinaren jabetza aldarrikatu zuten, bertan etxebizitzak egiteko, eta Udalak Kukutza gaztetxea itxitea eta eraistea erabaki zuen.

Kukutzan hainbat kultura-jardue-
ra egiten zituzten Errekaldeko neska-
mutilek, eta, haien artean, Diegok eta
Shaktik. “Kukutza gure egoitza zen:
aretoa, tresnak, berogailua, elektrizi-
tatea, gelak... dena genuen eskura
bertan, eta dena, doan. Zoragarria
zen, edozeini irekita, baina egun ba-
tetik bestera dena galdu genuen. Eta
guk ez genuen baliabiderik”, dio ar-

gentinarrek. “Gaztetxeak hainbat au-
kera ematen zizkion Errekalderi: roko-
dromoa, elkarteen zokoak, janto-
kia, kontzertuak eta zenbait tailer egi-
teko aretoak.... Errekaldeko bizilagun-
ek eraiki zuten Kukutza. Orain, aldiz,
auzoan ez da ezer gertatzen”, aipatu
du Shaktik.

Zenbait politikari, irakasle, edota
intelektual agertu ziren Kukutzaren
alde, baita Bilboko herritarrek ere. Al-
ferrik. Irailaren 21ean desagertu egin
zen Kukutza. “Jendearen erantzuna
itzela izan zen. Atzeritik ere etorri
ziren manifestazioetan parte hartze-
ra: Ingalaterra, Alemania, Italia... Ku-
kutzako asanbladan erabaki zen aha-
lik eta lagun gehieni deitzea, baina
espero genuen baino jende gehiago
etorri zen”, esan digu Diegok.



ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



Era askotako pinxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Tel. 94 452 26 75



Urrea balio du, bai

"Saiokoek nire bideoren bat ikusi zuten Interneten, eta programan parte hartzera gonbidatu ninduten posta elektronikoz". Hala hasi zen Iván Pérez-zen telebistako abentura, *Tú si que vales* saioan. Programa horretan artista ezezagunek ekitaldi bat eskaintzen dute, eta epaimahaiek aztertzen dituzte. Iván-ek umorezko bakarriketa aurkeztu zuen, eta bertan *beat-box* emaldia (hau da, hainbat soinu, ahoz) tartekatu zuen. "Azken bolada honetan bakarriketek gai berberak izaten dituzte hizpide: sexua, harremanak... Nik bestelako gai bat jorratu nahi nuen, eta burdinazko barrabila nuela esaten hasi nuen saioa".

Iváni ez zitzaizkion gauzak oso ondo ateratu saioan. "Oso urduri irten nintzen eszenatokira, eta gidoiak huts egin zuen, hainbat aldiz birmoldatu behar izan nuelako bakarriketa. Ez da nire ekitaldirik onena izan, ezta txarre-na ere. Berririo egingo nuke". Pozik dabil derioztarra bizi izan duen esperientziarekin. "Guztira, bost milioi lagunek ikusi naute telebistan, eta saioan agertu den lehenengo bakarriketagilea izan naiz. Esperientzia ikaragarria izan da, asko ikasi dudalako eta nire ikasketetarako (publizitatea) ondo etorri zaidalako".

Derioko gazteari gauzak beste era batean ateratzea gustatuko zitzaion. "Ez nuen denbora luzeegia izan dena prestatzeko, eta aldaketa batzuk egin behar izan nituen azken momentuetan. Hasiera batean, lau minutu izango nituela esan zidaten, baina gero bi baino ez nituen izan". Dena oso azkarra

IVAN IVENIAN | bakarriketagilea

Txorierriko *Izarren Distira* saioa irabazi zuenean ezagutu genuen Iván Pérez. Oraingo honetan, 19 urteko derioztarrak *Ivan Ivenian* goitzenpean hartu du parte *Tú si que vales* telebista saioan. Han sailkatzea lortu ez badu ere, bere ibilbide artistikoari ekiten jarraitzeko asmoa du.

"Esperientzia itzela izan da, asko ikasi dudalako eta nire ikasketetarako ondo etorri zaidalako"

"Risto Mejidek inoiz egin zuen kritikarik eraikitzaileena neuri egin zidan"

Martxoaren 10ean zuzeneko saioa emango du Iván-ek Gurea Aretoan, 20:30ean

zen Iván-entzat: bideoa bidali behar izan zuten saiokoek; hurrengo astean Madrilera joan zen familiarekin, aurkezpena grabatzera; eta hurrengoan, bakarrik abiatu zen Bartzelonara, programan parte hartzera. "Saioan parte-hartzaile profesionalak eta amateurak aritzen dira, eta ni profesionalen artean kokatu ninduten. Harrituta gelditu nintzen".

Epaileak

Ekitaldia egin eta gero, epaileei egin behar izan zuten aurre Iván-ek. Merche abeslariaren ustez, txistek ez ziren onak izan, baina, Iván-en esanetan, hori baino txarragoa izan zen Francisco Riveraren ekarpena. "Nik bukatu nuenean, txistek botatzen eta txantxak egiten hasi zen; nolabait esanda, protagonismoa lapurtu zidan. Gainera, nire ekitaldiaren zati batzuk ez dituzte emititu, baina haren trufak, ordeak, bai. Amorruek ematen dit horrek".

José Corbacho aktoreak eta Risto Mejide publizista beldurgarriak ere eman zuten iritzia. "Risto ez zen hain zorrotza izan. Hura izan banintz, askoz zorrotzagoa izango nintzatekeen neure buruarekin. Nik astero ikusten dut saioa, eta inoiz



egin duen kritikarik eraikitzaileena neuri egin zidan. Corbachori dagokionez, oniritzia eta aholku onak eman zizkidan. Batez ere haren ustea da garrantzitsua, hark ere bakarrik egiten dituelako”.

Ivánék beste lagun batzuk ere ekarri ditu gogora. “Cristian Gálvez aurkezlea oso jatorra iruditu zitzaidan. Harritu egin ninduen, ez bainuen espero halakoa izango zela. El Sevilla ere ezagutu nuen, eta berdin-berdin jokatzeko du kamaren aurrean zein atzean. Txantxetan ibili nintzen harekin. Oso barregarria izan zen. Biek animatu ninduten saioa bukatu zenean”. Derioko gazteak profesionalekin ez ezik amateurrekin ere egin zuen topo



telebistan. “Beste parte-hartzaileak talentu handikoak eta jatorrak izan ziren. Primeran pasatu genuen denok elkarrekin hotelean. Batek daki ikuskizunaren mundu honetan baliagarriak izango diren niretzat”.

Telebistak mundu magikoa aurkeztu digu, baina, Ivánen iritziz, dena itxura baino ez da bertan. “Saioa industrialde batean grabatzen da eta, oro har, oso narras iruditu zitzaidan dena: obrako komunak zeuden, platoan bertan aldatu behar izan nuen arropa... Beste alde batetik, zuzendariak osagai guztiak ditu kontrolpean: zer esaten duen bakoitzak une batean eta hurrengoan, nortzuek egiten duten aurrera eta nortzuek ez...”.

Iván etxean dago, Derion, “Inon baino gusturago” sentitzen den lekuan. “Derioztarrek eta Udalak izugarritzko babesa eman didate, batez ere, Jesús Lagunas Kultura zinegotziak. Deriokoa izan ez banintz, ez nukeen ezer lortuko”. Ivánék emanaldi batzuk egin ditu bere herrian, eta bidea “pausoz pauso” egiten dabilela dio. Hurrengo

Gure Señeak elkartearen eskutik eskainiko du martxoaren 10ean, Gurea Aretoan, 20:30ean, Gaixotasun Arraroen Egunaren haritik. Epaileek ez zioten utzi saioan aurrera egiten; guk ordea, bai, Ivánék urrea balio du, bai.

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
T: 94 406 08 08
Móvil: 607 406 613

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lehendakari Leicaola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cde. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



**danon artean,
danontzat**

Las Txirenitas, Zamudiotorren

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna izango da, eta, betiko legez, hainbat ekitaldi antolatu dira Txorierrin egun hori ospatzeko. Esate baterako, Las Txirenitas taldeak *La vida y sus cosas* ikuskizuna eskainiko dau Zamudiotorren, Udalaren eskutik. Antzezlanaren 19:00etan hasiko da, eta sarrerea doan izango da. Loli Astoreka, Sol Maguna, Gemma Martínez, Yolanda Martínez, Maribel Salas eta Vito Rogado aktoreek osatzen dabe Las Txirenitas. Taldea Bilboko Aste Nagusiaren haritik sortu zan 2010ean, eta Badulake kafe-antzokian ibili ziran lehenengo aldiz.

Aktoreak ezagunak egingo jakuz, telebistan behin baino gehiagotan ikusi doguzalako, eta, beharbada, horregaitik aukeratu dabe eurek telebistea, umorezko ikuskizuna sortzeko. "Saioan danetarik dago: testigantzak, zuzeneneko konexioak, musikea, dantza.... Telebista kontu honen aukerea emoten euskun dramaturgia barruan jokatzeko. Gainera, ikuspuntu zorrotz batetik aztertzen dogu gaur egungo telebistea", dino Loli Astorekak. "Niri telebistea gustetan jat, baina gustetan ez jakonak be badau telebista ez ikusteko aukerea, edo katea aldatzeko poterea. Telebistan edozein gauza ikusi daiteke: programa onak, txarrak eta erdipurdiak. Bakotxaren aukeran".

Telebisteari betidanik leporatu jako emakumeen irudi sexistak emotea, baina Astorekaren ustez, gaur egun ez da hainbesterako. "Ezin da orokorrean berba egin. Oso arin bizi gara eta telebistea gizaritearen espilua da. Bai gizonezkoak, bai emakumezkoak agertzen gara iragarkietan, eta erabilera sexistea egotekotan, niri ez deust horrek minik egiten". Halan-

Zamudioko Udalak antolatutako ekimena da. Herriar guztiei dago zuzenduta, eta sarrera doan izango da



da be, bere esanetan, urte askotan jarraitu beharko da ospatzen Martxoak 8ko jaia. Eta munduko egoera ekonomikoa zelangoa dan kontuan hartuta, agian beste gauza batzuk be aldarrikatu beharko dira.

Gizonezko batzuek be egin dabe behar saioan, baina eszenatokiaren gainean dagozan guztiak emakumezkoak dira. "Hainbeste emakume egoteak jakin-mina sortu dau, ez dakit zergaitik. Gaur egun estadistikek dinoe emakumezkoak gizonezkoak baino sarriago joaten dirala antzerkira. Eta gure saioetara be emakume gehiago etorten dira, nahiz eta *La vida y sus cosas* familia guztiari zuzendutako ikuskizuna izan. AIKOR! aldizkariko orrialdeetatik, pertsona guztiei luzatu gura deutset gure saioa zuzenean ikusteko gonbidapena: emakumezkoak, gizonezkoak, gazteak, nagusiak... Primeran pasauko dabe-eta".



“Kantua, bizitzea ikusteko modu bat”

ITSASO ARRIETA | kantu irakaslea

Musika munduan dabilzanek ondotxo ezagutzen dabe Itsaso Arrieta. Santutxuar Lezamatartua kantu irakaslea da eta urteak daroaz euskal kantagintzea herritarrei hurbiltzen. Aitatu deuskun moduan, abesti ondare itzela dogu euskaldunok, “geure nondik norakoak ezagutzeko modukoa”. Berak badaki sobran.



t/a: Itxaso Marina

Zenbat abesti dauz Itsasok buruan?

Pilo bat! Eta egunean-egunean bariak entzuten eta ikasten.

Eta bategaz edo besteagaz gelditu beharko bazina?

Ezin izango neuskio horri erantzun, askogaz geldituko nintzateke-eta. Bizkai-kopla, baladak, *Musde Ürrütia* Zuberoakoa adibidez edo beste hamaikatu kantagaz. Baina asko eta asko dagoz. Bizkaikoez gain, Iparraldeko kantuak be asko maite dodaz. Hango lagunak dodoan harremanagaitik izango da, beharbada. Jentea abesten entzun eta ikusten dozu-nean, benetan bizi eta sentitzen dabela ohartzen zara. Gazteek be bai. Egia da momentu baten beherakadea egon zala, baina kantatzeko ohiturak barriro egin dau gora, daukan garrantzia ikusi dabela-koko. Oso kantu ederrak dagoz mugaren bi aldeetan.

Zer entzuten dozu abesten ez zabilzanean?

Danetarik. Bardin deust Guridiren konposizioak entzuteak, edo Zuberoako abestiak... edo edozein bazterretan aurkitutako ahozko tradiziozko "zinta" zaharren bat be bai. Gehienbat euskal musikea entzuten dot, tradizionala, baina esan daiteke danetariko musikea entzuten dodala.

Notez eta melodiez gainera, zer da musikea?

Niretzat, bizimodu bat... eta bizitzea ikusteko modu bat be bai. Nik ez neuke



neure bizitzea kantu edo musika barik ikusiko. Azken baten, kantatzeko ohitura handia dago gure Herrian, eta dana kantu dogu beti: bizipenak, tristetasuna, alaitasuna, ospakizunak... Harremanak eukiteko beste tresna bat be badala pentsaten dot. Beste inogaz abesten danean, alkarri begiratu, oso indar berezia sortzen dalako kantetan dagozanean artean. Informazio handia jaso daiteke kanta-lagunaren gainean kantatzeko moduari erreparatu: zelakoa dan, zelan sentiduten dauan... Niretzat, persona bategaz kanteterakoan konektatu ezker, betiko izango da lotura hori.

*"Bizkaikoez gain,
Iparraldeko kantuak
be asko maite dodaz"*

*"Ez neuke neure
bizitzea kantu edo
musika barik ikusiko"*

*"Persona bategaz
kanteterakoan
konektatu ezker, betiko
izango da lotura hori"*

Argi dago personengan eragina dauala...

Amaren sabelean gagozanetik dauka eragina eta ez bakarrik bizidunongan; bizibakoetan be badau eragin handia. Adibidez, taula baten gainean harea hedatu eta ondoan soinu ipiniz gero, musika bortitza bada, estutu egingo da harea; eta suabea bada, zabaldu. Soinu-uhinek eragina dabe bizibakoetan, eta bizidunongan askoz handiagoa da eragin hori, zuzen-zuzenean doa gure zentzumenetara eta bihotzera. Gogo-aldatea aldatu, denporan zehar transportatu,... indar ikaragarria dauka musikeak.

.....*Harri garria*.....

PLAN RENOBED

Otsailaren 18^{ra} arte

280€

280€-ra arteko beherapena,
ohea, koltxoia eta oinarria erostean
SUITE DELUX dendetan bakarrik (Ikusi behean)

SUITE DELUX

ATSEDENERAKO MARKA ESKLUSIBOAK

www.suitdelux.com

- 1 Leioa Koltxoi-Denda, 944 316 516
La Avanzada 80 (Bilboko norabidean)
- 2 Arteaga Koltxoi-Denda, 944 545 147
Derioko Apaiztegia
- 3 Lotara Koltxoi-Denda, 943 202 784
Errebal 19, Eibar

Bihotza, Bizkai eta Iparraldearen artean

Musikeagaz oso harreman estua dauan emakumea da Itsaso, eta hori familiarengandik jatorkon kontua da. Beti kantau izan da bere etxean. "Domeketan mendira joaten ginan, eta auto barruan gurasoak eta bost neba-arrebok ginala, txistua-eta atera eta kantaten hasten ginan beti; lehenengo ahotsa, bigarrena eta guzti egiten genduan". Suertea euki eban lezamarrak lagun kantuzaleak be topau zitzualako. Oraindino dauz buruan Bilboko zazpi kaleetan egindako kantu parrandak. "Bestetik, aitaren eraginez, gazte-gazterik hasi ginan Iparraldera joaten eta han lagunak egin genduzan, hareek be kantariak. Gaur egun bertaraino hurbiltzen jarraitzen dogu. Oso harreman estua dot hango lagunakaz; asko ikasi dot euren-gandik". Bihotza erdibanatuta dau: zati bat, Bizkaian; eta bestea, Iparraldean.

Gaztea zala Labayru ikastegian hasi zan beharrean, gaztetxoei zuzendutako udako ikastaroetan monitore. Eta pixkanaka-pixkanaka joan zan ibilpidea egiten. "Kantu ikastaroa emoteko deitu eusten eta oso harrera ona euki ebala ikusi genduan, eta abestien bitartez bai geure

kultorea, bai hainbat gauza ikasten dirala. Eta gauza baten atzetik beste bat etorri zan: ikastaro gehiago, proiektuak...". Proiektu horreen artean, *Katuen testamentua* umeen kante osatutako diskoa dago, Oskorrik ahotsa jarri eutsana. "Inguruan hezkuntzan ebilen jentea neukan, eta umeakaz abesteko kantu gitxi egoala esaten eben. *Kantu gitxi? Asko dagoz eta!* pentsau neban. Proposamena egin neban Labayrun eta abestiak batzeari ekin geuntsan. Itzela izan zan, jenteak deitzen euskun abestien bersino ezbardinak erakustearren, eta ikastaroak egiteko eskatzen euskuen eskoletatik".

Musikea asko maite dau Itsasok, eta pasinoak arlo hori aztertu eta ikastera eroan dau; grinea ogibide bihurtu dau. Halan, umeen kanten eta herri kanten gaineko ikastaroak emoten dauz; Labayru, herrietako alkarte eta Udako Euskal Unibersidadearen bidez antolatzen dauz horreek. Pozik dago eta buruan hamaika kantu ez eze hamaika proiektu be badaukazala azaldu jaku. Halanda be, ez deuskuz horreek oraindino jakinarazo gura. Bardin deutso, hurrengoan be musikan nahastuta topauko dogu.



"Biztanleriaren alde batek ez ditu herri kantuak ezagutzen. Eta ezagutzen ez doguna ez da existiduten"

"Abestiek laguntzen deuskue bai geure burua, bai geure ingurua ezagutzen"

Daukan beste garrantzirik emoten deutsagu?

Nik esango neuke baietz. Azken urteotan, kantuak oso arin egin dau aurrera Txorierri, esate baterako. Halanda be, egia da biztanleriaren alde batek ez dituala herri kantuak ezagutzen. Eta ezagutzen ez doguna ez da existiduten.

Herri kantuak ezinbestekotzat dozuz gure identitatea ezagutzeko.

Bizitzan aurrera egin eta sendo ibiltzeko, lehenengo eta behin zeure burua eza-gutu behar dozu: nor nazen, nondik natorren eta nora joan gura dodan. Eta gero, zeure ingurua. Abestiek laguntzen deuskue bai geure burua, bai geure ingurua ezagutzen. Izan be, folkloreak zati dira kantuak eta folklorea herri jakintza da. Kantuetan danak dau isla: herrian gertatutakoak, zelangoak garen, zelan sentiduten dogun, bizitzea zelan ikusten dogun... Horreek ezagutu ezker, ulertu egingo doguz geure izatearen nondik norakoak.

Ahozko transmisinoa behar beharrezkoa.

Belaunaldiz belaunaldi transmitidutako jakintza geure egiten dogunean, berez aterako jaku egoereak eskatzen deuskun kantea, esaerea edo ipuina. Umeagaz zagozanean abesti konkretu bat jatortzu burura eta, gura barik, umeari transmitiduten deutzazu, eta umeak ulertu egiten dau. Ahozkoa arina da, bat-batekoa eta behin eta barriro errepikatzen dana. Poeta arabiar batek esan eban bezala, hiz-



kuntza baten bizia errepikapena da; hiz-kuntza eta kultura baten bihotza errepika-pena da. Gure kantuetan, behin eta barriro gabiltza hau edo bestea errepikatzen, dala egiturea, dala sinboloa, dala egoerea...

Haur hezkuntzan dabilzanei, gura-soei... zuzendutako umeen kanten gaineko ikastaroak emoten dozuz. Zertan dautza?

Umea jaiobarria danetik hamar urte bete arteko sasoia lantzen dogu, eta bere bizitzaren etapa bakotzeko ezaugarriak kontuan hartu eta jagokozan kantu-jolasak aurkezten doguz. Zentzumenak lantzen lagunduko deutsien kanten jorratzen doguz: lo kanten, eskuakaz egiteko abestiak, ibiltzen hasten diranerakoak, logikea eta memoria lantzekoak, afektibitatea adierazotekoak... Hitzen sonoritatea, onomatopeiak... be jorratzen doguz, eta halan umea pixkanaka-pixkanaka gure hizkuntzaren soinueta hurbiltzen doa.

Merezi dauan lekua dau musikeak Hezkuntzan?

Ez, eta penea da. Musikeari nazinoarteko hizkuntzea esaten jako, izan be, batu egiten gaitu eta taldean hunkiarazoten gaitu. Taldeko euforia behar-beharrezkoa dogu, alkarregaz hunkitzea eta guztion ahotsek bat egiten dabela, indarra egiten dabela, ikustea. Oso inportantea da hori, baina ez gara konturatzen.

Lehen aitatutakoez gainera, herri kantuen inguruko ikastaroak be egiten dozuz.

Horreek neurritan antolatzen dira, parte hartzaileen ezaupideen arabera. XV. mendetik gaur egunera arteko kantuak jorratzen doguz. Kantua entzun eta aztertu egiten dogu: zer dinon, dauan sinbologia, zein tes-

tingurutan abesten zan,... eta azkenean ikasi eta gozau kanteteen zein entzutean.

Buruan abesti pilo bat dozula aitatu dozu lehen, zeintzuk dira zure iturriak?

Etxea, familia, Labayruko artxiboak, ikasleak... asko dira iturriak. Lagunengandik be asko ikasi dot, Dominikengandik eta bere ingurukoengandik, adibidez. Bestalde, nik jakin-mina handia dot, asko irakurtzen dot eta handik eta hemendik nabil galdezka.

Gure kantagintzak kanpokoagaz zerikusirik badauka? Uste baino gehiagok batzen gaitu?

Herrien kokapenaren eta euki daben historiaren arabera, argi dago bakotzak bere kutsua eta berezitasunak islatu dituala kantuetan. Baina funtsean ez dago oso ezberdintasun handirik. Guztiok gai bardintsuak jorratu doguz geure abestietan, kezka antzekoak... Norberaren tradizioa ezagutzen danean, ingurukoena be hobeto ulertzen da eta zabalago egiten gara, beste modu baten onartzen da inguruko. Gu ez gara bakarrik eta ingurukoakaz lotura bakoak, kultura guztiak hari beretsutik doaz.

Hemen heziketa lana da

POLITEKNIKA IKASTEGIA

TXORIERRI

S.COOP.

Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Sagarren Irakasgintzako Ikastetxea

Uztzagatza Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa

BUENO INJENIERIA **GOBIERNO VASCO**

Umeak Q kalitate-kudeaketaren erakle saria lortzen duen LHko (Bikalko lehenengo ikastetxea)

Gure tailer eta laborategiak ezagutzera etorri

ATE IREKIEN JARDUNALDIA
Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Diseinua fabrikazio mekanikoa (2.000 ordu)
- Diseinua fabrikazio mekanikoa Gai maila (2.000 ordu)
- Produzioaren programazioa Gai maila (2.000 ordu)

KIMIKA

- Ingurumen-kimika Gai maila (1.400 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA



- Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak Gai maila (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta informatika sistemak Gai maila (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin gestioa Gai maila (1.400 ordu)

Batxillergo tekniko eta zientifikoa

la 6,5 milioiko aurrekontua aurtengo ekitaldirako



UDALAK: %81,10

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak 6.462.392,59 euroko aurrekontua onartu du 2012. urteko ekitaldirako. Diru-kopuru horretatik, 408.786,32 euro langileen gastuak betetzera bideratuko dira; eta 452.706 euro, transferentzia arruntak egitera. Inbertsio errealetarako 5.500 euro aurreikusi dira, eta diru-zatirik handiena ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuetarako izango da: guztira, 5.595.400,27 euro. Aipatutako azken atalean Gizarte zerbitzuei lotutako arloak sartzen dira: gizarte hezkuntzako esku-hartze plana, adingabeei eta familiari arreta psikologikoa eskaintzeko zerbitzua, esku-hartze komunitarioko zerbitzua eta oinarritzko gizarte zerbitzuak. Era berean, berdintasuna, gazteria, euskararen sustapena, hondakinen bilketa eta tratamendua, bideetako garbiketa eta argiteria publikoa ere hartzen dira atal horren barruan.

Aurrekontuaren %81,10 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten Udalak eurek jarriko dute: 5.240.985,67 euro. Bizkaiko Foru Aldundiak %8,48 ipiniko du; eta Eusko Jaurlaritzak, %3,18. Hau da, 547.735,32 euro eta 205.625,55 euro, hurrenez hurren. Aurrekontuaren %7,24 (468.046,05 euro) beste diru-iturri batzuei esker beteko da.

Desfibriladoreak, bizitzak salbatzeko

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak desfibriladore erdi automatikoak jarriko ditu bailarako gune jendetsuetan. Hala, herritarren bati kalean bihotzekoak emanez gero, berehalako laguntza eman ahalko zaio, osasun-zerbitzuak ailegatu baino lehen. Guztira 22 unitate hartuko dira. Horietako 18 finkoak izango dira; hau da, bakoitza kabina baten barruan egongo da, eta jendetza handia biltzen den lekuetan ipiniko dira, udaletxeetan, kiroldegietan, plazetan, eta ikastetxeetan kasu. Beste lauak, berriz, mugikorrek izango dira eta unitate bana emango zaie





HERRIA ATALA	DERIO	LARRABETZU	LEZAMA	LOIU	SONDIKA	ZAMUDIO
LANGILEEN GASTUAK: 203.887,56 euro	54.886,53 euro	19.634,37 euro	25.322,83 euro	25.078,17 euro	45.609,65 euro	33.356,01 euro
ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK: 4.689.998,11 euro	1.185.560,35 euro	321.701,79 euro	475.000,72 euro	658.680,74 euro	1.181.924,24 euro	867.130,27 euro
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK: 341.800,00 euro	92.012,56 euro	32.915,34 euro	42.451,56 euro	42.041,40 euro	76.460,66 euro	55.918,48 euro
INBERTSIO ERREALAK: 5.300,00 euro	1.426,76 euro	510,39 euro	658,26 euro	651,90 euro	1.185,61 euro	867,08 euro
GUZTIRA: 5.240.985,67 euro (%81,10)	1.333.886,20 euro (%20,64)	374.761,89 euro (%5,80)	543.433,37 euro (%8,41)	726.452,21 euro (%11,24)	1.305.180,16 euro (%20,20)	957.271,84 euro (%14,81)

Esan bezala, aurtengo ekitaldietarako aurrekontuaren %81,10 Udalen diru-ekarpenek osatuko dute. Horrela, Deriok guztira 1.333.886,20 euro ipiniko ditu; aurrekontuaren %20,64, hain zuzen ere. Sondikak 1.305.180,16 euroko ekarpena egingo du (%20,20); eta Zamudiok, 957.271,84 euroko ekarpena (%14,81). Bestetik, Loiu 726.452,21 euro ipiniko ditu (aurrekontuaren %11,24); eta Lezamak, 543.433,37 euro (aurrekontuaren %8,41). Larrabetzuk 374.761,89 euroko ekarpena egingo du; aurrekontuaren %5,80.

Sondika, Loiu, Derio eta Zamudioko udaltzainei. Desfibriladoreak udaberrian jartzeko asmoa du Mankomunitateak.

Bestetik, oinarritzko prestakuntzaren gainera ikastaroak antolatuko dira, eta, besteak beste, gai hauek jorratuko dira bertan: konexio-sistemen funtzionamendua, bihotz-biriketako bizkortzearen teknikak eta desfibriladoreen erabilera. Horren haritik, aipatu beharra dago desfibriladoreek sistema bat edukiko dutela, pertsona bati benetan bihotze-koak eman dion igertzeko gai izango dena. Bihotze-koak ez badio eman, ez dute deskargarik emango. Gainera, larrialdietako zerbitzuarekin harremanetan jartzea ahalbidetzen duten sistema ere edukiko dute.

Kokalekuak, herriz herri

Zamudio:

- Leizaola lehendakaria plaza
- Kiroldegia
- Udaltzaingoa

Lezama:

- Udaletxea
- Herri ikastetxea
- Santa Kurtze basiliza

Loiu:

- Kiroldegia
- Udaletxea
- Udaltzaingoa

Larrabetzu:

- Kiroldegia

Derio:

- Udaletxea
- Kiroldegia
- Gurea Aretoa
- Futbol-zelaia
- Herri ikastetxea
- Udaltzaingoa

Sondika:

- Basozabal futbol-zelaia
- Jubilatuen Etxea - Liburutegia
- Goronda Beko kiroldegia
- Artebe kiroldegia
- Kultur Etxea
- Udaltzaingoa



Txorierritarron sarea, AIKOR!en arimea



Sarea Txorierrri osora zabalduta genduala, barikuan batu ginan Derioko Kultur Birikan, AIKOR! aldizkariaren urteurrena ospatzeko. Hamar urte bete dira 0 alea kaleratu zantetik, eta ekitaldiak zerbait berezia eta hunkigarria izateko itxurea eukan. Txalaparta hotsak deitu eutsan jenteari, eta begien itxi-ireki baten bete zan aretoa. Ha txiki gelditu zan, eta askok kanpotik jarraitu behar izan eben gala.

Udane Goikoetxea kazetariak hartu eban sareko troinuak josteko ardurea, eta bidea emon eutsen ekimenean parte hartu eben hizlari, musikari eta artistei. Abesbatza erraldoia osatu eben Txorierriko koruetako kideek eta abesti zoragarri bi eskini euskuezan: *Txoria txori* eta *Oi kanta berri*. Lander Aiarza Derioko alkatteak berbea hartu eta ondo etorria emon

euskun han gengozanei. Ostean, Larrabetzuko musika eskolakoek abesti polita aurkeztu euskuen, beste inor aurkeztu baino lehen. Eta kritika zorrotzak entzuteko unea ailegau zan, Larrabetzuko bertso eskolako lagunen eskutik. Orduan esanak gogoan hartu, eta txoria dieta egi-ten hasi da daborduko. Argazkilaria aparteko orduak sartzen dabil, eta argazkilaritza ikastaro batera doa arrastiro. Baina ez dakigu oso ondo hartu dauen, izan be, adierazo deusku zuek be ahalegina egin eta gimnasia, ule-apaindegia renera... joan zeintezela. Publizidadeagaz gura-go geunke ez sartu, baina benetan dinto- suegu oso serio gabilzala aldizkarian horoskopoa ipinteko aukerea aztertzen. Posterrena be gustau egin jakun eta herri-ritarren artean castinga egiteko asmoa dogu; deialdiak laster zabalduko doguz. Eta komikilaria artista da; uste dogu horretan ez dagoala ezer egiterik.

Artean irribarrea ahoan ebela, eszenatokira igon eben Txorierriko euskera al- karteetako kideek: Altzora, Tximintx, La- gatzu, Zorritzetan eta Arrekikili. Herria- ren, hizkuntzearen, AIKOR! aldizkariaren

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalira, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA

Mahon

Sakelako telefonoa: 947 67 73 00
NEHVER pol. - Ebeizarte kalira, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✉ faxa: 94 452 25 67
patxiscoop@patxi.coop

www.patxi.coop

BAI
ZUBATUTSI

**MODA
INFANTIL**

Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia



garrantziaz mintzatu jakuzan, euren ahotik esaldiek eta bertsoek urten eben bi-tartean. Eta *Txoria txori* entzun zan barri-ro aretoan, Oihane Ibarretzek Mikel Labo-aren abestia a capella abestu eban eta. Disparate zirku taldeak aho zabalik itxi ginduzan euren akrobaziakaz, dana umo-rez beteta. Aurkezleak aitatu eban mo-duan, gurea lako proiektuak aurrera eroa-teko, ahaleginak ez ezik akrobaziak be-egin behar dira askotan.

Urteurrenak ospatzen diranean, az-terketea egiteko joerea dago; saihestue-zina da. Xabier Goienetxe aldizkariaren zuzendariak AIKOR!-en nondik-norakoak errepasau, eta esan euskun onagaz baino



GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

 **Garmendia**
ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

 **GUEDAN**
servicios deportivos, s.a

Jesuein Bihotza plaza, 5 - Euzkalduna er. 7., 1. oittoa
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 67 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubietta

Osanun-zentrua & Hortz-zentrua
HORTZ-ENPLANTEAK - OHTU-KONTZATZ-ESTETIKOA
HANTAK ZEPEN HELDIRAK

Dr. Arciza kalea, 11 - 1. enk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

 **OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5, beheak
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



ez zala gogoratzen, eta batez be zuekaz. Ezinbestekoak izan zarielako AIKOR! inguruan sortu dan sare erraldoi hau osatzeko orduan. Halan, hamar urtean 300 denda eta enpresa baino gehiagok aukeratu da-be AIKOR!, euren jardurearen barri emoteko, eta aldizkariak 171 kolaboratzaile euki ditu, eta hainbeste aikor!lagun. Eszenatoki- ra zuetariko batzuek igon zenduen, baina esker ona guztiontzat da. Ezusteetarako unea be egon zan ekitaldian. Ezer ez gen- kiala eta nahasmen apur bategaz, esena- tokira igon behar izan genduan langileok. Baina geuk be bagenduan batekoa ondo gordeta, eta ustekabeen harrapau gendu- zan Xabi, Ales eta Marifeli. Hamar urtean, AIKOR! hilero kalean egon bada, euren ilusi- noari eta ahaleginari esker izan dalako.



LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA


HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

Zirrara aidean, Bertoko taldekoek eta dantzariak hartu eben protagonismoa. Lehenengoek eszenatokia herri kantu baten lehenengo notak intonau baizen laster, bigarrenak ikusleen artean nahastau, eta dantzan hasi ziran. Amaiera bikaina, ekitaldi bikain baterako. Trikitiaren soinuak jaiak jarraituko ebala adierazoz euskun eta kopau bat hartzeko prestatutako lekura hurreratu ginan. Urteurrenak beste traza bat hartu eban bertan.



Bai Euskarari
urrats biziak

ziurtagiriaren elkarburuak **bai** elkarburuaren argi

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragotxi ind. P-7
48170 Zamudio (Bizkaia)

Restaurante
JANA JAETETXEA

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriñeri etorbidea, 9 - Loria | Artea eraikina | 48180 OERIO
94 454 01 01 | 657 70 54 45
info@dentizainduz.com | www.dentizainduz.com

makla
arkitektura

Teknoloki Parkeko Elkartegia, 804 E - 107 B
94 491 79 21 | 48600 Derio, Bizkaia
653 06 386 | estudio@maklaarkitektura.com
620 080 11 | www.maklaarkitektura.com

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragotxi ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Buruko gaitza hurbilago

t/a: Itxaso Marina

Lau pertsonetatik batek osasun mentalari lotutako gaitza edukiko du bere bizitzan zehar. Inor ez gaude salbuetsita. Hala ere, buruko gaitza gehienok ezagutzen ez dugun gaia da, errefusa eta beldurra sortarazten dizkiguna. Elenak idatzitako liburuak buruko gaitza duen pertsonaren egunerokotasunera hurbiltzen gaitu eta horretarako, oso hizkuntza laua eta ulerterraza erabiltzen du. "Hogeita zazpi urte daramatzat gaixo hauekin eta euren familiekin lanean, eta ondotox ezagutzen ditut egunero aurre egin behar dieten erronkak eta zailtasunak, euren lorpenak eta berriz gaixotzeak... Mina egiten dit kalean haiei buruz hedatuta dagoen iritzi okerrak, eta ekarpena egin nahi dut gizar-

Elena Rodríguez Seoane larrabetzuarrak *Conocer la enfermedad mental* liburuak aurkeztu berri du. Liburuak buruko gaitza eta hori duten gaixoak gizarteari hurbiltzea du helburu. Baita senideei eta profesionalei baliabideak eskaintzea ere, gaixotasuna hobeto ulertu eta abordatzeko egokia egin dezaten.

"Buruko osasunaren arazoak gizartera hurbildu behar dira eta hark ere haietako partaide izan behar du"



teak gaixoa eta gaixotasuna hobeto ezagutu eta ulertzeko". Elena kezkatuta dabil buruko gaitzen inguruan dagoen ezjakintasunarekin, eta adierazi digu ondorioak askotan oso arin ateratzen direla, eta hitzak ere oso arin erabiltzen direla. "Kasu ikaragarrien berri ematen digute komunikabideek, baina hausnartu behar dugu horiek zergatik gertatzen diren. Ziur asko, izenburuetan azaltzen diren gaixoez ez dute euren tratamendua hartu eta ez dira medikuarenera aldi-aldi joan. Ingarua eta familiaren beraren egoera ere hartu behar dira kontuan. Egia da gaixotasunaren barruan hainbat maila daudela, baina bere medikamentua hartu eta mediku-kontrolpean dagoen gaixoa gauza da nahiko bizitza arrunta eramateko, beste edozein pertsonaren antzekoa".

Liburuan Psikiatriari dagozkionez alderdi guztiak aztertzen ditu Elenak: gaixotasun motak eta euren seinaleak; zelan aurrezaindu; gaitza antzemaneko gero, gaixoak eta senideek jarraitu beharreko pausuak; sortu ahal diren arazoak; gaixotasunaren abordatzeko egokia; eta gaixoarekiko jarrera, banaka batzuk aipatzearen. Lana egiteko, arlo honetan adituak direnak hartu ditu oinarritzat. Era berean, bere ibilbidean ikasitakoa eta erizain moduan lortutako eskarmentu handia eduki ditu informazio-iturri. "Liburuak jende guztiari





Egilea

dago zuzenduta, jakin-mina dutenei, gaixo mota honekin dabilzan profesionalei, senideei, lagunei, klinikan hasten diren gizarte-langileei... Beharrezkoa zen Osasun Mentaleko erizaintzatik lan egitea”.

Hainbat hausnarketaren emaitza

Bestetik, patologia arinen gaineko hausnarketa ere egin du liburuan. Azaldu-takoaren arabera, horiek gero eta ohikoagoak dira eta zerikusia dute pertsonaren garapenarekin. Biologikoak ez badira ere, okertu ahal dira. Gaixotasunotan hainbat faktorek dute eragina: inguruneak, sozialak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak. “Ez dugu sufritu nahi eta zoritxarren aurrean medikamentua eskatzen dugu. Baina bizitza poztasuna eta sufri-mendua da. Hausnartu beharra dago buru-ahuleziaren zergatia zein den. Nire ustez, txikitatik landu behar dugu frustra-

zio-ahalmena, eta mugak onartzen ikasi. Gizarteak ere egin behar du lan, arazo horiek ekiditeko”.

Conocer la enfermedad mental urteetan garatzen joan den liburua da. Elenak eta beste hiru kidek Argia Fundazioaren eguneko ospitalea jarri zuten martxan 2000. urtean. Boluntario ibili ziren eta euren bat egin zuten beste boluntario batzuek, gehienbat Deustuko Unibertsitateko Psikologiako ikasleak eta etxeko andreak. Elenak materiala prestatu zuen boluntarioei heziketa emateko, eta material hori Díaz de Santos argitaletxera ailegatu zen lagun baten bitartez. Liburua handik hona egindako hainbat informazio-biltze, hausnarketa eta zuzenketaren emaitza da. “Ezjakintasun handia dago gai honen inguruan, eta errefusa horrexek sortarazten du. Buruko osasunaren arazok gizartera hurbildu behar dira eta hark ere haietako partaide izan behar du”.

Hogeita zazpi urte baino gehiagoko eskarmentua duela, Elena Rodríguez Seoane Buruko Osasuneko Erizaintzako unibertsitate-diplomaduna da, eta Zamudioko Ospitale Psikiatriko-ko errehabilitazio zerbitzuan egiten du lan. “Oso lan polita da, poztasun handia ematen didana”. Horrezaz gainera, etengabeko prestakuntzako irakaslea da 2000. urtetik hona, eta 2007. urtean bere ardurapean hartu zuen Ospitalean egiten diren Buruko Osasunaren arloko erizaintzako praktiken tutoretza. Irakasle eta hizlari aritu da hainbat erakunde, unibertsitate eta ikastetxetarako, eta artikulua idatzi ditu *Huntza*, *Oinarri* eta *Rol* aldizkarietan. *Alzheimer se escribe con A de ayuda* liburuan hartu du parte, eta *Conocer la enfermedad mental* berak bakarrik idatzi duen lehenengo liburua da.

Jatetxea SAN ISIDRO
EUSKO OKILETAN ESPIZIALIZATUA ETA ETXERIKO GOZOGINTZA AFARUA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 98 Fax 94 454 14 18 Mungialde etorbidea, 25 48160 DERIO

t o k t a k
EGUNERO ZABALIK
Ordutegia:
13:00etik 15:30ra arte
20:00etik 23:30ra arte
Etxera eramateko zerbitzua: 1 €
Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

IRATXO
gozotegia
Mikel Zarate, 2 - 3. floor
Sondika, 48130
94 543 89 19

Hamarkada bi, hamaika kanta



GAZTELUMENDI ABESBATZA

Gaztelumendi Larrabetzuko abesbatzak 20 urte bete ditu, eta, urteurren hori ospatzeko, egitarau berezia pres-tatu du 2012rako. Kanpoko taldeen emanaldiak eta ez-ohiko saioak izango ditugu eta, gainera, omenaldia egingo zaie kide eta zuzendari ohi batzuei.

t: Gaizka Eguskiza

“Kideek merezimendu handia dute, gehienak hasiera-hasieratik dabiltralako abesbatzan. Eta guztien ahaleginari esker, abesbatzak aurrera egiten du. Oso garrantzitsua da 20 urte betetzea”, dio Jesús Antruejo zuzendariak. Jesús musika irakaslea da, baita musikaria ere, eta 2005ean sartu zen abesbatzan. “Taldekideek ezagutzen ninduten eta, aurreko zuzendariak utzi zuenean, niri deitu zidaten”. Larrabetzuko abesbatzaz gain, beste abesbatza bi zuzentzen ditu: Itxartu, Algortakoa; eta Lagun Beti, Barakaldokoa.

Ekitaldi berezi batzuk egingo ditu abesbatzak urtean zehar, Larrabetzun bere urteurrena ospatzeko. “Lehenengoa martxoaren 23an egingo dugu, herriko

elizan, nik zuzentzen ditudan beste abesbatza biek. Bertan omenaldia egingo diegu lehengo zuzendariari eta kide ohi batzuei. Haiek guztiek omenaldia merezi dute gogor egin dutelako lan, eta taldeko historiaren parte garrantzitsua direlako”, esan digu Jesúsnek.

Normalean, abesbatzak lau kontzertu eskaintzen ditu udaberrian. Beste bat, ikasturtea bukatzen denean, eta beste bat, Gabonetan. Gainera, irteeraren bat ere antolatzen dute. Aurten, ordea, ez dute udaberrian kontzerturik emango, aurtengo hitzorduak ahalik eta ondoen prestatu ahal izateko. Gainera, maiatzean parte hartuko dute Gerra Zibileko Burdinazko Gerrikoaren inguruko ekitaldietan. Abesbatzak garai hartako herriko kanta batzuk berreskuratu eta taularatuko ditu.

Urteko hitzorduak

Martxoan:

–Hilaren 23an, Larrabetzuko elizan. Itxartu Algortako Abesbatza eta Lagun Beti Barakaldoko Abesbatza.

Ekainean:

–Mendiona Sodupeko Abesbatza eta Vocanti Angeluko abesbatza.

Maiatzean:

–Burdinazko Gerrikoaren irekieraren haritik.

Abuztuaren:

–Hilaren 15ean. Orkestrarekin batera. –Herri-kantaldia.

Urrian:

–Montijoko abesbatza polifonikoa.

Abenduan:

–Txorierriko Gabon-kanten jaialdia.

Udari begira, ekitaldi batzuk antolatu dituzte. Ekainean, Gaztelumendikoak Sodupeko Mendiona eta Angeluko (Lapurdi) Vocanti abesbatzekin arituko dira. Beste alde batetik, abuztuaren 15ean, herriko jaietan, gaur egungo kantak abestuko dituzte estreinako aldiz, orkestra txiki batekin batera. Era berean, herriko kantaldian hartuko dute parte.

*"Musika korala
elizarekin lotu ohi da,
baina gaur egun
garaikideagoak dira
errepertorioak"*

Gaztelumendikoak Extremadura alde-
ra joan ziren iazko udazkenean, eta orain-
goan euroak etorriko dira hona. Beraz,
urrian Montijoko (Badajoz) abesbatza po-
lifonikoa izango da Larrabetzun, eta kon-
tzentua eskainiko du herriko abesbatzare-
kin. Urtea biribiltzeko, Txorierriko Gabon-
kanten Jaialdia Larrabetzura ekarri dute,
eta hor eskualdeko sei abesbatzak entzu-
teko aukera izango dugu.

Jendea erakartzen

Gaztelumendikoek egitarau ederra
prestatu dute, Larrabetzun euren lana era-
kusteko, eta herriko jendeak eurekin ondo
pasatzeko. "Baina gure kontzertuak edo-
nori daude irekita. Tamalez, beste abesba-
tzei gertatzen zaien moduan, guk ere gaz-
teak botatzen ditugu faltan. Musika kora-
la elizarekin lotu ohi da, eta neurri batean
egia da, baina azken bolada honetan pen-
tsamolde hori badoa aldatzen. Erreperto-
rioak zabaldu egin dira, garaikideagoak
dira, eta abesbatzak gauza ezberdinak
egiteko gauza dira". Ildo honi jarraituz,
Gaztelumendi abesbatzak *Argi beltza* kon-
tzentu ikaragarrian hartu zuen parte duela
urte batzuk. "Normalean abesbatzek ez
dute horrelakorik egiten, baina gu jendea
erakartzen saiatzen gara. *Argi beltza* kon-
tzentua zela-eta, kide berri batzuk sartu
ziren taldean".

Gaur egun, 32 abeslari ditu abesba-
tzak, gehienak Larrabetzukoak, baina bai-
ta Zamudiokoak eta Deriokoak ere. Zu-
zendariaren esanetan, oso giro ona dago
taldean, eta kideek jarrera paregabea
adierazten dute. "Beti agertzen dira behar
egiteko prest, baita proiektu ausartak pro-
posatzen dizkiedanean ere. Esate batera-
ko, atzerriko hizkuntzetan ere abesten
dute. Argi dago denbora luzeago behar
dugula haiek prestatzeko, baina edozein
gauza egin ahal dute abesbatzako kide-
ek". Hala izan da azken 20 urteotan, eta
datozen urteotan ere halaxe jarraituko du,
ziurrenik.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

"PRINTZEA ETA AHATEA"
Teatro Gorakada
Umeentzako antzerkia, euskaraz
(3 urtetik aurrera)
Martxoak 18, 17:00
Prezioa:
-12 urte: 5 €
+12 urte: 8 €



"CARPE DIEM: AMIGOS PARA SIEMPRE"
(AMIGOS HASTA LA MUERTE)
Txalo Produksioak
Gazte eta helduentzako tragikomedia
Martxoak 24, 20:00
Prezioa: 10 €



ZINEA

LA INVENCIÓN DE HUGO
127' AG (ESTREINALDIA 3D)
Martxoak 2, 19:00
Martxoak 3, 18:00 - 20:30
Martxoak 4, 17:00 - 19:30

LAS CHICAS DEL CALENDARIO
110' AG
Martxoak 9, 18:30
Zine-forum (doan)

AITA ZOMBIA NAIZ
80' EG-7
Martxoak 10, 18:00
Martxoak 11, 17:00

LOS DESCENDIENTES
110' EG-7
Martxoak 10, 20:30
Martxoak 11, 19:30

JOHN CARTER
AG (ESTREINALDIA 3D)
Martxoak 16, 19:00
Martxoak 17, 18:00 - 20:30
Martxoak 18, 19:30

VIAJE AL CENTRO DE LA TIERRA 2
94' AG (3D)
Martxoak 25, 17:00 - 19:30

BLANCANIEVES (MIRROR, MIRROR)
AG (ESTREINALDIA)
Martxoak 31, 18:00 - 20:30
Apirilak 1, 17:00 - 19:30

2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatuak izan daitezke



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basernko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Oguiza
Hartz Klinika

Kirurgia eta inplanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak

Anguluri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890



URAS
Estetika eta masajea

Aita Pabli Ugaldé, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)



Pelukeria
Estetika

94 455 81 44
Anguluri 2, behea Larrabetzu-Bizkaia



Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu

656 786 744 94 455 80 20

Gorpuak bidea egiten eban

Artolako errotea, eta Larrabetzuko Uriaren eta Galdakaoko Elizalderen arteko gatazka luzea, usadioak eta ohiturak

t/a: Sabin Arana

Larrabetzuko Uriko kontsejuak errota bat eregitea erabagi eban XVI. gizaldiaren hasieran. Baina errekek ez eban aukera handirik emoten bere lurretan, eta errotea ipinteko tokirik aproposena Galdakaoko lurraldean topau eban. Eta, gainera, topauko lurren ugazaba Larrabetzuko zanez, proiektuagaz aurrera egitea pentsau eban. Garai hatan tirabirak egozan Urien eta Lur Lauaren artean, eta gatazkatatik Uriak atera ohi ziran irabazle. Hori dala-eta, Larrabetzuko Uriaren eta Galdakaoko Elizalderen arteko auzia epaiketara eroan eta epaia Uriaren aldekoa izan zan. Era berean, Uriak eztabaidea euki eban errotea jarri gura eban lurraren jaubegaz, harek be bere errotea eregi gura eba-

lako. Gatazka horretatik be irabazle urten zan Uria. Baina orrialde honetara ekarri doguna ez zan egun bitako auzia izan, baizen eta 100 urte pasa ostean eztabaidak artean jarraitzen eban.

Besteak beste, auzia jaso zan agiri-moltsoan arakatzen genbilzala ohitura zahar baten barri euki dogu; ordukoa zan eta ia gaurkoa dan ohitura edo usadio baten barri. Izan be, ohiturea lege bihurtzen da, eta Artolako erreka-zati hori ezin ebal bereganatu ikusita, Galdakaoko Elizalde trikimailu bategaz saiatu zan, ondoren kontauko deusuguna.

Errotako maizterra, Galdakaokoa zana, hil egin zan eta gorpua prozesinoan joiala Galdakaora eroatea erabagi eban, han ehortzeko. Baina urikoek euren asmoen barri euki eban. Ezpateari heltzen



Argazkietan gure egunera arte mantendu diran tramankuluak azaltzen dira, oso ondo jagon diranak.



Artola errota, Galdakaorako bidean. Ha Larrabetzuko Uriaren errotea izan zan XIX. mendera arte. Mende horretan saldu eben, Independentziaren gudan egindako zorrak kitatzeko. Beheko argazkian, antaparea azaltzen da, gaur egun be ikusi geinkena.

eutsiela, bai kontsejukoak, bai beste biztanle batzuk agertu ziran errotan, gorpua handik eroan ez eien, ha Elizaldera erooten baeben, errotea be hango ondasuna zala adierazoko ebalako. Nahiz eta Galdakaoko Elizalde Uriak erabilitako indarkeria argudiatu, ez eben gorpua handik erotea lortu.

Goian aitaturakoa usadio eta ohituraren barruan hartu behar dogu, zalantzarik ez. Halanda be, "gorpuaren indarra" adierazoten eban beste ohitura bat be azalduko dogu, emondako azalpenagaz, gorpua lurralde markau egiten ebalargi gelditu bada be, harek eban beste eragin bat ezagutu dogu-ta. Halan, zerraldoa kanposantura eroan behar zanean, lur-soloetako jaubeek kontu handia eukiten eben batetik edo bestetik eroatea izterakoan, gorpua nondik eroan, bide edo lur hori bide komunala edo herribidea bihurtzen zalako betiko.

Bestetik, ezaguna da, ari garen garaian, uri-batzarrak kanposantuan egin ohi zirala, eta kanposantuak eleizaren inguruan edo eleizaren barruan egozan. Nolanahi be, ohiturak dino batzarrok eleizaren inguruko aterpean be egiten zirala. Esate baterako, Larrabetzuko Uriko eleiza ingurua ez da garai hatakoa, XVIII. mende bukaerakoa baizen, baina Elizalden gaur egun be ikusi geinke eleizpeko mahai ingurua, zeinetan batzarrak oraintsu arte egin baitira. Azkenik, esan geinke garai hatan begirune aparta ebela hildakoen-ganako eta arbasoenganako, eta, gaur egun ez bezala, kanposantuak ez zirala toki ilun eta tristetzat hartzen; alderantziz, herri-bilguneak ziran.



Errotaren presea, Korridorearen obrak hasi baino lehen egoan moduan.

*Zerraldoa nondik
pasatzen zanaren
arabera, lurra bide
komunala edo
herri-bidea bihurtzen
zan betiko*

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**

Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen kumutatuak
Mantutze garbi-ikusiak
Bulegno eta lokalak
Oima emaitzako garbiketa
Basturak
Zahar bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

lurindegia MAMEN mertzeria

Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

harategia - urdalategia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

naturelle

AYURVEDA

KOLONEKO HIDROTERAPIA

NUTRIZIOA

✉ Astintze 2, 1. C Elor eraikinean
(trenaren lehengo hesiaren aurrean)
48160 DERIO Bizkaia

☎ 699 182 520

🌐 www.naturelle.es

Wikipedia, gero eta euskaldunagoa



*Guztira Lur
entziklopediako
11.000 sarrera
daude irakurgai*

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko eduki entziklopedikoak jarri ditu sarean, Wikipedia webgunean, hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzak eduki libreen aldeko filosofia bultzatu nahi du, eta horrekin Wikipedia bat dator. Gainera, webgunea irtenbide teknologiko egokia, azkarra, erabilgarria eta merkea da, eta, lan egiterakoan, besteak beste parte-hartzea, osagarritasuna,

elkarlana eta lankidetzat sustatzen ditu. Beraz, Lur Hiztegi Entziklopedikoa eta Lur Entziklopedia Tematikoa irakurri ahal izango dira *on line*.

Guztira, 11.000 sarrera daude irakurgai; haietatik 8.500 berri-berriak dira Wikipedian, eta gainontzekoak eguneratu egin dira. Sarreraren %20 Euskal Herriari dago lotuta, eta %80k gai orokorrak jorratzen ditu. European euskarak baino askoz

hiztun gehiago dituzten hizkuntza batzuek (grekoa eta letoniera, esate baterako) ez dute horrenbeste sarrerarik. Eki-mena aurrera ateratzeko, azken hilabeteotan Elhuyar Fundazioa eta hainbat euskal *wikilari* ibili dira lanean.

Eusko Jaurlaritzak bultzada ederra eman nahi die Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiaei (IKT). Izan ere, funtsezkoak izan daitezke, euskara mundu mailan hedatzeko. "Aro digitalak aukera paregabea ematen digu informazioa ahalik eta gehien demokratizatzeko. Orain ez da behar prentsa edo telebista inperiorik besteengana iristeko. Nork bere bloga sor dezake. Eta, hemendik aurrera, edonon egonda ere, errazagoa izango da dakiguna beste batzuekin euskaraz elkartrukatea. Iparragirrek iragarri zutenaren haritik, euskara lau haizeetara eta bost kontinenteetara zabaldu da", esan du Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak.

Auzmendik aipatu duenez, eduki digital horiek euskaldun guztiek erabiltzea dute helburu, baina lehentasuna ikasleak dira. "Euskal Herrian, hezkuntza-maila guztietako ikasleek beste hizkuntza batzuetan (berezik gaztelaniaz, frantsez eta ingelesez) idatzitako testuak itzuli behar dituzte esfortzu handiz. Euskaraz sortutako material gehiago behar dugu. Uste osoa dut gai garesti kalitatezko euskarazko entziklopedia digitala sortzeko. Amesten dudana entziklopediak orotarikoa izan behar du, baina euskararen eta Euskal Herriaren gaineko sarrerek toki berezia izan behar dute. Haurrak eta nerabeak erakartzeko, irudiek eta lan grafikoek garrantzi handia izango dute. Hori da Eusko Jaurlaritzaren eta Wikipediaren nahia eta horretan ari gara".

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Orduzgi jarraitua
Laser depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Osteopata

Larrabari, 1 Ionia - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiolasai@gmail.com

Carnicería
Charcutería
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TEL: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagaitik



Fidel Castro Don Manuel durangarrak ezkondu eban

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

AIKOR! gurea irakurtzeaz ganera, Durangaldeko *Anboto* astekaria be leidunten dot, bertako lagunei esker. Hareen aldizkariko zutabegileen artean, bada Juan Bizente Gallastegi deritxan idazle ezaguna, kulturen ezin hobeto jantzia. Honek, *Tontorretik begira* izeneko liburua argitaratu dau Labayrun. **Ondinokarren hileran** bete edo joan izango da irakurri nebala. Eta interes handiko pasarteen artean dakar, zelan durangar batek ezkondu eban Fidel Castro eleizaz, nahiz-eta biografia ezagunetan edo film

ospetsuetan halakorik agertu ez, eta gitxiago abade durangarrak ezkondu ebanik.

“Ez zan halakoa Don Fermin Madariaga. Ameriketatik etorri barri, hainbat alkarritzeta eta hartu-emon izan nebazan beragaz. Durangotar (sic) peto-petoa eta Durangoko kaleko “berbetia” egiten eben azkenetarikoa. Bera zala-eta, Fidel Castroren barri gehiago nenkian edozein kazetarik baino. Mendiaren ebilen hau Batista agintari-buruaren aurka. Nondik nire jakite hori? Don Fermini entzunda. Zelan ekien, ba, berak Fidel Castroren horrenbeste barri?

Ba, Don Ferminen Fidel hain ospetsua izan orduko ezagutu ebalako. Hain zuzen be, Fidel Castro, Unibersidadean ikasle zala, Don Ferminen anaiak, Don Manuel durangotarrak (sic) ezkondu eban, elizaz, Batistaren ordezkari edo ministro baten alabeagaz ezkondu be.”

Aiko hemen globalizazioaren merkatuan txalapartaren ahotsa google-en belarrietaraino helduta. Handiak txikia jan egiten dauela? Bai txikia geldi bada. Arranoak ez dau lehenengo bietan atrapauko epetxa!

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

**Inmobiliaria
ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobila: 607 32 35 53 48160 DERIO

**Kitchen sukaldeak**

Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak

ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAZRUAK, SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK



TF.: 94 656 85 69
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Txorierriko etorbidea, 9
Artesa eraikine
48160 Derio (Bickala)

Gorka García Llamosas
608 16 76 18
gorkiguay@hotmail.com



Txakur eta katuentzako pentasua
Prezio onean
Etxera eramaten dizugu

**MARMOLGINTZA
GOYO**
SUKALDE-GAINEKOAK ORRAK HILERIAK



Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabes
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

**KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA**

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Etxeko sukaldaritza

Olagarroa patatakaz

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak:**

- Kilo bi inguruko olagarro bat
- Patata handi bi
- Gatz fina eta ura (ugari)
- Oliba orioa
- Maldon gatza edo gatz lodia
- Piperrauts pikantea

Prestateko erea:

Lapiko handi baten ur ugari eta gatza bota, eta surtan ipiniko dogu. Irakiten hasten danean, olagarroa sartuko dogu. Ha hiru biderrez "ikaratu" egingo dogu; hau da, irakiten hasten dan bakoitzean, lapikotik atera eta lapikora sartuko dogu berriro. Patatak garbituko doguz, baina

zuritu barik botako doguz lapikora. Patatak eta olagarroa 40 minutu inguruan eukiko doguz batera egosten. Patatak egosita dagozanean, olagarroa be egosita egongo da. Baina, badaezpadan, zotz bategaz egiaztatu dogu halan dan edo ez.

Olagarroa eta patatak atera eta hotzitzen itxiko doguz. Patatak zuritu eta 0,5 zentimetroko xerretan ebagiko doguz. Olagarroa be bai.

Azpil baten patatak ipiniko doguz; eta hareen gainean, olagarroa. Labara minutu bi inguruan sartuko dogu. Handik atera eta gainetik gatz lodi apur bat, piperrautsa eta zurrustada bat orio botako doguz. Gustukoa bada, berakatz txikitua be bota daiteke.



Patata gisatuak, idarrakaz

Osagaiak (sei lagunentzat):

- 1,2 kilo patata
- 250 g idar
- Kipulea
- 2 koilarakada urin
- 12 koilarakada orio
- Perejila
- Gatza

Prestateko erea:

Patatak xerratan ebagiko doguz. Kipulea be ebago eta kazuela baten prijiduko dogu. Idarrak bota eta su eztitan 10 minutuan eukiko doguz. Patatak eta urina botako doguz eta ondo nahastuko dogu dana. Minutu bi pasau ostean, ura botako dogu patatak estali arte. Ura irakiten hasten danean, gatza botako dogu eta surtan itxiko dogu, ondo egin arte. Mahaira ateraterakoan, perejila botako deutsagu gainetik.



 **Ercoreca**
supermerkatuak
Elikaduran adituak

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

 **eleizalde**
kafetegia
Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean) 48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrikortze doan
-Especialitatea:
umeak



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Beste norbaiten zapatak, Garazi Kamio
- Des egiten, Ione Gorostazu
- Gauza guztiak, Rafa Egiguren
- Arnaut abadiaren zoo ilogikoa, Kepa Altonaga
- Zwei frauen (bi emakume), Joxean Agirre

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Oroimenaren lorratzak, Karlos Santisteban
- Izuen eskultorea, Josu Unzueta / Iraia Okina
- Bat pat - Kirats Doktoarearen mamua, Roberto Pavanella
- Olaj-en bidaia, Manu López Gaseni

MUSIKA

- Hodeien azpian, Ruper Ordorika
- Erreterian 1999-IX-25 (zuzenekoak), Xabier Lete
- Rock & ron (dvd+cd), Ze esatek!

Sudokua

		7					3	
	2		9			6	4	
		6		9			5	
9	7			5				
	4		1	6	2	3		
					7	1		
		2	6				9	3
			3			2		4

4	9	2	6	4	7	5	8	3	1	9	2	6	4
7	5	8	3	1	9	2	6	4	7	5	8	3	1
3	6	9	4	2	7	1	8	5	3	6	9	4	2
8	4	5	1	6	2	3	7	9	8	4	5	1	6
9	7	1	8	5	3	4	2	6	9	7	1	8	5
2	3	6	7	9	4	8	5	1	2	3	6	7	9
5	2	3	9	7	1	6	4	8	5	2	3	9	7
6	9	4	2	3	8	5	1	7	6	9	4	2	3
1	8	7	5	4	6	9	3	2	1	8	7	5	4



Erakusketak

Sondika

- > "Hijos de Chernobyl", Jorge Lopezen eskutik. Martxoaren 1etik 30era arte, erakusketa gelan.

Derio

- > "Iconografía", Charles "Cako" Boussionen eskutik. Martxoaren 14tik 30era arte, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Derio

- > "Olerkiaren olerkia". Martxoaren 21ean, 18:30ean, Kultur Birikan. Literatura tailerak antolatua.

Larrabetzu

- > *Egarri egunak portu aldean*, Koldo Iza-girrerren lana. Martxoaren 22an, 20:00etan, Anguleri kultur etxean. Literaturaz berbetan ekimenak antolatua.

Ikastaroak

Sondika

- > Skate, Apainketa eta barne-diseinua, eta Hezi huts egin gabe. Izena emateko epea: martxoaren 5etik 16ra arte, liburutegian.

Lezama

- > Lehen sorospenak. Martxoaren 4an, Zorribike taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Bizkarrezurra zaintzea. Izena ematea: martxoaren 19tik 30era arte, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Sondika

- > Musika eta dantza ikuskizuna. Martxoaren 30ean, 18:30etan eta 20:00etan, Kultur Etxean.

Derio

- > *Bere patuaren baino gogorragoa* zine-foruma. Martxoaren 28an, 18:00etan, Kultur Birikan. Literatura tailerak antolatua.
- > *Amor al fresco* antzezlan, Luna Llena antzerki taldearen eskutik. Martxoaren 30ean, 20:30ean, Gurea Aretoan. Prezioa: 2 euro.

Zamudio

- > *Gezurrezko printzea* antzezlan, Txirene taldearen eskutik. Martxoaren 5ean, 20:00etan, Zamudiotarren. Lagatzuk antolatua, Emakumearen Nazioarteko Egunaren haritik.
- > *Klik Klak lana*. Martxoaren 9an, 18:00etan, Ludotekan.

Irteerak

Sondika

- > Astxiki-Atxarte. Martxoaren 11n. Izena ematea: martxoaren 8ra arte liburutegian. Gurasoen elkarteak eta Udalak antolatua.

Zamudio

- > Arte Ederretako museoa: Anselmo Guinearen erakusketa. Martxoaren 3an. Izena emateko azken eguna: martxoaren 1a.

Lezama

- > Lezamako trenbide zaharra. Martxoaren 25ean, Zorribike taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Larrabetzutik oinez. Martxoaren 18an, Gurasoen elkarteak antolatua.

Lehiaketak

Zamudio

- > Mahai-futbol Txapelketa. Martxoaren 16an, 19:30ean, Gazte Estazioan.
- > Frontenis, binaka. Izena emateko azken eguna: martxoaren 16an, Udaletxean.

Bestelakoak

Txorierrri

- > Berbalagunen afaria. Martxoaren 16an, Lezamako txokoa.

Sondika

- > Bikarte elkartearen hitzaldia, udan Errusiako umeak hartzeko. Martxoaren 6an, 19:30ean, Gaztetxean.
- > Mozorro zaharrak ematea. Martxoaren 8an eta 9an, 18:00etatik 20:00etara, Kultur Etxean.
- > Berdintasun rallya. Martxoaren 2an, Gaztetxean.
- > Berdintasun dinamikak. Martxoaren 9an, Gaztetxean.

Derio

- > Maskotaren IV. Azoka. Martxoaren 10ean, 11:00etatik 20:00etara, frontoian.
- > Tokiko Agenda 21. Martxoaren 27an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Zamudio

- > Gazteentzako programazioa prestatzeko batzarra. Martxoaren 2an, 20:00etan, Gazte Estazioan.
- > Eskola berrien inaugurazioa. Martxoaren 17an.

Lezama

- > Zuhaitz Eguna. Martxoaren 11n, plazan. Bilerak, herri eskolaren urteurrenaren haritik. Martxoaren 23an, 19:00etan, eskolan.

Larrabetzu

- > Herri bazkaria. Martxoaren 8an, Gure Etxean. Prezioa: 20 euro.
- > Bizifesta. Martxoaren 23an, 17:30ean, plazan. Gurasoen elkarteak antolatua.
- > Saharako umeak udan hartzeko kanpaina. Eskabideak: martxoaren 23ra arte, liburutegian.
- > Aste Santuko programan izena ematea: martxoaren 12tik 16ra arte, Anguleri kultur etxean.



Euskara hobetzeko, laguntzeko, erabiltzeko, bizitzeko... "Berbalaguna" euskaldunon mundua.

zu gabe ezin

ZATOZ eta EGIN



HARREMANAK ETA INFORMAZIOA: telf.: 635 75 35 95 • Txorierri.berbalaguna@gmail.com
IZENA EMATEKO TOKIA: Txorierriko mankomunitatea: 94 454 03 50 • Udal euskaltegia: 94 454 00 62
• Txepetxa euskaltegia: 94 454 39 67

AURTENETXE, S.A.

Kontzesionarioa | Banatzailea | Zerbitzu Teknikoa



VIKING

**%20-%30
beherapenak**

martxoaren 1etik
apirilaren 30era arte



Kubota
ESKAINTZAK



Grillo



www.aurtenetxe.es

Sogeon Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18